

Kontzeju

www.ohotzi.eus



Berria Ohart



@berriaohart



berriaohart



berriaohart

DEGIK

Oñatika Udal aldizkaria | 2016ko Iraila | 254. zehakia



2.057 ODISEA BAT KANPOSANTUAN

Irailaren 29an estreinatuko da filmaren bigarren zatia

ARAUTUTAKO APARKALEKU SISTEMA BERRIA

► Denbora mugatuko aparkalekuak egokituko ditu Udalak erdiguneko lau gunetan. ► Ordutegi komertzialean gehienez ordubetez aparkatu ahal izango da gune hauetan.

Oinbideratutako kaleetan (Kale Barria, Kale Zaharra eta Atzeko Kale) dauden denda, ostatu eta zerbitzuetara errezago iritsi ahal izateko, denbora mugatuko edo errotazioko aparkalekuak egokituko ditu Udalak herriko erdiguneko lau gunetan (ikus 4. orrian). Denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute bertan bizilagunek, baina horretarako **Guneko Biztanlearen txartela** eskuratu beharko dute udaletxean, eta dagokion tasa ordaindu.

Gune hauetan gehienez 60 minutuz aparkatu ahal izango du merkataritza ordutegian. Ez da ordaindu beharko aparkatzeagatik, baina parkimetroan ateratako tiketa jarri beharko da kotxean leku agirian, denbora muga gainditzen ez dela ziurtatzeko.

JAIEN OSTEAN JARRIKO DA MARTXAN SISTEMA BERRIA, APARKALEKUAK MARGOTU ETA PARKIMETROAK INSTALATU ONDOREN

Aparkaleku arautua izango duten beste bi gune ere bereiztuko ditu Udalak, baina gune hauetan inguruko bizilagunek bakarrik aparkatu ahal izango dute (ikus 4. orrian). Denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute bertan bizilagunek, baina horretarako **Guneko Biztanlearen txartela** eskuratu beharko dute udaletxean, eta dagokion tasa ordaindu.

Irailean zehar parkimetroak instalatu eta guneak margotu egingo ditu Udalak, eta ustekaberik ez bada, jaien ondoren jarriko da martxan araututako aparkalekuan sistema berria.



Denbora mugatuko gunetan aparkatzea doakoa izango da, baina parkimetroan ateratako tiketa jarri beharko da kotxean leku agirian



WALESKA MAGER

ile apaindegia

- 20 urtetik beherakoentzat prezio bereziak
- Astearte eta asteazkenetan deskontuak
- Larunbat arratsaldeetan zabalik
- Irailean garbitu eta orraztu **15-18€**

Waleska Mager Ileapaindegia
Errementari plaza, 1
Tel.: 943 03 91 70 | Mug.: 605 72 64 43



Denbora mugatuko edo errotazioko aparkalekuak



DENBORA MUGATUKO APARKALEKUEN FUNTZIONAMENDUA

ERROTAZIOKO ORDUTEGIA:

- astelehenetik ostiralera: 8:30-13:15 eta 16:00-20:30
- larunbatetan: 8:30-13:15

APARKATZEKO DENBORA MUGA:

- Aparkatzeko gehienezko denbora tartea: 60 minutu.
- Ezingo da gune berera bueltatu hurrengo 2 orduetan (baina bai beste gune batean aparkatu).

- Merkataritza ordutegitik kanpora (20:30-8:30) eta jai egunetan, denbora muga barik aparkatu ahal izango da gune hauetan.

DOHAINIK, BAINA TIKETA JARRITA

- Gune hauetan aparkatzea dohainik izango da, baina tiketa atera beharko da parkimetroan, eta leku agirian jarri autoan. Lanean diharduten ibilgailu komertzialek, autotaxiek eta larrialdietako ibilgailuek ez dute tiketa jarri beharrik izango.



Inguruko bizilagunentzako aparkalekuak



FUNTZIONAMENDUA

NORK APARKATU AHAL IZANGO DU:

- 'C' eta 'E' guneetan Kale Zaharra (1-29 eta 2-48), San Anton, Aita Madina, Foru Enparantza, Unibertsitate Etorbidea, Maiatzaren 1a eta Portu kaleetako bizilagunek aparkatu ahal izango dute (Guneke Biztanlearen txartela eskatuta udaletxean).

- 'M', 'N', 'S' eta 'T' guneetan Bidebarrieta, Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale, Kale Barria eta Errementari plazako bizilagunek aparkatu ahal izango dute.

GUNEKE BIZTANLEAREN TXARTELA:

- Aipatutako kaleetan erregistratutako ibilgailuen jabeek eskatu ahal izango dute. Jabea ere bertan erroldatuta egon beharko da. Ibilgailuek ezingo dute 9 plaza kopurua gainditu (gehenez 6m-ko luzeera eta 3.500kg.-ko pisua).
 - Txartela eskuratzeko urteko tasa ordaindu beharko da.



fontanería y calefacción

BELOKI

- > Iturgintzako material salmenta
- > Komun eta sukaldeetako erreformak
- > Azulejoen salmenta
- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diselnuia, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

*Irailetik aurrera,
erakusketa berria*

Herriguneko osatuena

*3. adinekoentzako atal berezia,
Aldatu bainuontzi zaharra,
dutra-plater araso batengatik*

www.belokionline.com

URTEBETE oñatiarren zerbitzura

>> Mikel eta Unai Saiz anaiek zabaldu zuten 'Coinbroker Aseguru-Artekaritzak', urtebete egin du oñatiarren zerbitzura. Merkatuan dauden eskaintzarik onenak aztertu eta behar duzun aseguruak kontratatzen laguntzen dizute. 12 hilabete hauetako balorazioa egin dugu arduradunekin.

Urtebete pasa da bulegoa ireki zenutenetik, zer moduz?

Oso ondo, egia esan hasierak beti izaten dira zailak, baina lan asko egin ondoren, herri-tarren konfidantza lortu dugu eta hau eskertzekoa da.

Harrera ona izan al du negozio berri honek Oñatin?

Bai, dudarik gabe. Hala ere, ez da kontzeptu berri bat. Inguruko herrietan, duela 20 bat urtetatik daude Aseguru Artekaritzak (Corredurías de Seguros). Oñatiar batzuk bailarako herri hauetan zituzten beraien aseguruak eta herrian aukera hau izatea interesgarria iruditu zaie. Bestalde, egia da zer egiten dugun ez dakien jende dexente dagoela oraindik. Era labur baten azalduko dugu:

Oñatin bi aseguru bitartekari ezberdin daude: agente eskusiboak (*Mapfre, Zurich, Generali, Lagun Aro*) eta independenteak edo aseguru artekaritzak (Coinbroker). Guztiok egiten dugu lan berdina: aseguru konpainia eta bezeroen arteko bitartekariak gara, aseguruak saltzen ditugu eta bezeroak ordaintzen duenean, diru honen komisio bat eramaten dugu.

Beraz zein da zuen arteko



ezberdintasuna?

Guk, legez, ezin dugu loturarik eduki konpainiekin eta konpainia ezberdinekin egiten dugu lan. Agente eskusiboak berriz, konpainia bakarrekin dute erlazioa.

Bezeroarentzako zein da ezberdintasuna?

Lehen esan bezala, biok gara bitartekariak. Aseguru mota guztiak saltzen ditugu (bizitza, heriotza, etxea, autoak, etab.), eta saldu ondorengo zerbitzua ematen dugu. Ezberdintasuna independentzian dago. Guk merkatuko konpainia guztiek dituzten baldintzak aztertzen ditugu eta bezeroarentzako onenarekin gelditzen gara.

Eta ezbeharren aurrean nola erantzuten duzue?

Orain arte aseguruak izan duten konpainiako baldintza berdinak eskaintzen ditugu. Gu



AGENTE ESKUSIBOAK



gara beraien kontaktu zuzena kasu guztietan eta ezbeharren aurrean ere. Horregatik, berdina da bezeroak aseguru bakoitza (etxea, autoa, etab.) konpainia ezberdinekin izatea, gugana etorriko da eta.

Zerk harritu zaituzte gehien urte honetan?

Guri baino, jendeari gehien harritzen diona, egiten ditugun dohaineko konparaketa azterketak dira. Hau da gure

Agente zein artekaririk bitartekariak gara.

Gure ezberdintasuna: independentzia, merkatuko konpainia guztien baldintzak aztertu eta bezeroarentzat onena eskaintzen dugu

lana egiteko dugun filosofia. Ez dugu gauzak egiteko beste era bat ulertzen. Azken finean, gure bezeroek kontratatzen dutena ulertu beharra daukate eta hori, oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

Harritzen dituen beste puntu bat lortzen ditugun prezioak dira. Normala den bezala, merkatuko aukera onenak aztertzean, prezio hobekak lortzen baitira. Hala ere, garrantzia handiagoa ematen diogu beti produktuaren kalitateari.

Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?

Guretzat gako den etengabeko formakuntza. Ingenieritza ikasketen ondoren, Coinbroker-eko proiektuarekin hasi aurretik bi urtetan zehar aseguruaren inguruko formakuntza sakona jaso arren, aurten goi mailako bitartekari titulua ateratu dugu eta dagoeneko, kolegiatuak gara. Gure lana behar bezala aurrera eramateko, ezinbestekoa ikusten genuen formakuntza hau.

Era berean, eskerrak ematen amaitu nahiko genuke, gure proiektuko bide hasiera honetan gugan konfiantza eta laguntza osoa eskeini diguten guztiari.

COINBROKER
OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

C/ Arantzazuko Ama, 3
20560 Oñati-Gipuzkoa

943 089006

www.gipuzkoa.coinbroker.eus

oinati@coinbroker.eus

Igerilekuarekin zer egin?

► Kiroldegiko igerilekua handitzeak, edo beste nonbaiten berria eraikitzeak izango lukeen kostua aztertu du Udalak ► Urritik aurrera parte hartze prozesua irekiko du herritarren iritzia jasotzeko.

ABIAPUNTUA

Azken urteotan luze eta zabal hitz egin izan dugu kiroldegiko igerilekuaren inguruan. Txiki geratu omen da, askoren ustez. Eta uda parterako estali gabeko igerilekua eskatzen dutenak ere ez dira gutxi. Bestalde, *Kirol Management* enpresak duela bi urte Udalarentzat idatzi zuen Kirol Planean ere jasotzen da kiroldegia eta, bereziki, gune hezea eraberritzeko premia.

Horren aurrean, Udalak aukera ezberdinak aztertzea eskatu zien kirol azpiegituretan adituak diren *Chocarro&Herranz* arkitektoei. Hauek aurreproiektu ezberdinak idatzi dituzte, eta orain Udalak herritarrekin partekatu nahi ditu, euren iritzia jasotzeko.

Alde batetik, kiroldegiko gaur egungo igerilekua handitzeko aukera aztertu da; eta bestetik, herriko beste lekuren batean igerileku berria eraikitzeak zein kostu izango lukeen baloratu da.

Udalak ez du oraindik inolako erabakirik hartu. Bide bat edo bestea jorratzen hasi aurretik, prozesu parte hartzailea jarriko du abian, erabakia herritarrekin batera hartzeko. Urrian lehen bilera irekia egingo da, mahai gainean dauden aukerak eta aurreproiektuak azaltzeko. Arkitektoak ere bertan izango dira, herritarren galderei erantzun eta zalantzak argitzeko.

Udal gobernu taldearen asmoa da agintaldi honen amaierarako behintzat erabakiren bat hartzea igerilekuaren inguruan.

AURREPROIEKTUA-1



Gaur egungo igerilekuari 3 kale gehitzea eta igerileku txikia handitzea

AURREKONTUA: 3,5 MILIOI EURO

Lehen aurreproiektu honek Zubikoa kiroldegiko gune hezea oso osorik eraberritzea aurreikusten du. Igerileku handian 3 kale gehiago (8 guztira) egingo lirateke, eta igerileku txikia gaur egun sauna dagoen tokiraino handituko litzateke. Aldagela berriak egokituko lirateke gaur egun aerobik gela dagoen tokian, eta honen gainean solairu berri bat eraikiko litzateke, gimnasiarako edo bulegoetarako espazio berriekin.

GIMNASIOA HANDITU

Eraberritze plan honek kiroldegiko gimnasioa handitzea (squash kantxa bat kenduta) eta inguruan dauden espazioak (botikina, aldagelak...) birmoldatzea ere aurreikusten du.

ALDE ONAK ETA TXARRAK

Proposamen honen alde positiboa da zerbitzu guztiak kiroldegian mantenduko liratekeela, eta kiroldegiaren zati bat eraberrituko litzatekeela. Alde negatiboa berriz, obrak dirauen bitartean (urtebete inguru) igerileku barik egongo ginatekeela. Kanpoko igerilekurik ere ez litzateke egingo.



Gaur egungo bulegoen eta aerobik gelaren gainean solairu berri bat egokitzea aurreikusten da proposamen honetan

AURREPROIEKTUA-2



Igerileku berria eraikitzea, herriko beste guneren batean

Zaharra eraberritzeak izango lukeen aurrekontua ezagututa, igerileku eta gimnasio berriak herriko beste guneren batean eraikitzeak izango lukeen kostua ere jakin nahi izan du Udalak. Kasu honetan bi proposamen landu dituzte Chocarro&Herranz arkitektoek.

1. AUKERA: SABAI ERRETRAKTILAREKIN (3,5 MILIOI EURO)

Zabaldu eta itxi egiten den sabaia izango luke igerilekuak, uda partean estali gabe erabiltzeko aukerarekin. Aukera honek 3,5 milioi euroko aurrekontua du.

2. AUKERA: KANPOKO IGERILEKUAREKIN (4,5 MILIOI EURO)

Bigarren aukera honetan barruko eta kanpoko igerilekuak (estali gabeak) egitea proposatzen da. Kanpoan bi ur potzu egingo lirateke, ondoko planoak erakusten duen moduan; bata txikia, tamainaz eta sakoneraz, eta bigarrena igeri egiteko bi kalez gain, txirristak eta jolaserako elementu batzuk dituena. Bigarren aukera honek 4,5 milioiko aurrekontua du.

7.000m²-ko LURSAILA BEHARKO LITZATEKE

Goiko bi aukera hauetakoren bat egin ahal izateko 7.000 m²-ko lursaila beharko litzateke, Chocarro&Herranz arkitektoen arabera, eta gaur egun Udalak ez dauka horrelatarako egokia izan daitekeen espaziorik herrigunetik gertu. Beraz, goian aipatutako bi aurrekontu horiek nabarmen igoko lirateke, Udalak lursaila erosi beharko balu.

Bestalde, igerilekua eta gimnasioa kiroldegitik ateratzeak langile gehiago kontratatu beharra ekarriko luke, eta, gainera, Zubikoa kiroldegian ere obrak egin beharko lirateke, igerilekuak eta gimnasioak utzitako tokiari erabileraren bat emateko. Beraz, sakonago landu beharreko proposamenak dira, noski, baina era honetako azpiegitura bat eraikitzeak gutxi gora behera izango lukeen kostua erakusten dute, eta eztabaidatzen hasteko oinarri bat da.

PADDLE PISTAK


Kiroldegiko instalazioak eta, batez ere, igerilekua berritzeko egitasmo honen baitan, paddle pistak eraikitzeak aukera aztertzea ere eskatu zien Udalak Chocarro&Herranz arkitektoei.

Hala, bigarren tenis pistaren aldamenean paddle-eko hiru kantxa egiteak 600.000 €-ko kostua izango luke. Aldiz, estali gabeko tenis pista dagoen lekuan egingo balira paddle kantxak, eta hauen ondoan tenis pista berria (hau ere estalia), aurrekontua 776.000 eurokoa izango litzateke.

Aurrekontu handiak direla ikusita, oraingoz, aukera hauek alde batera utzi eta igerilekuaren proiektuan zentratzea erabaki du gobernu taldeak.

BI KALE GEHIAGO IGERILEKUAN

Kiroldegiko igerileku handiari bi kale gehitzeak 681.000 €-ko kostua izango luke. Horixe izan zen Udalak Chocarro&Herranz arkitektoei egindako lehen kontsulta, baina beste behar batzuk ere bazeudela ikusita egitasmoa handituz joan da.



Estali gabeko bi igerileku txiki egiteko aukera jasotzen du Chocarro eta Herranz arkitektoek landu duten aurreproiektuetako batek

IRRIfuxiatuak

Haur errefuxiatuentzako eskola materiala batzeko deia luzatu du **HOTZ-OÑATI** taldeak. Irailaren 16rarte luzatuko da kanpaina.



**MOTXILA
SOLIDARIOA
ERABILTZEN
EZ DUGUN
MOTXILA BAT, ETA
ESKOLA MATERIALA
ESKATZEN DA.
NORK BERE
IKASTETXERA EDO
HARMANSOLOÑA
TALDEAREN
LOKALERA
ERAMAN DAITEKE**

Hermansoloñak Bidebarrietan daukan edukiontzira eraman daitezke motxila solidarioak, irailaren 16a baino lehen. Hotz-Oñati taldeak irailaren 22an bidaliko ditu motxilak Greziara *Dandelion* GKEaren bidez.

Hotz-Oñati taldeak dei egiten die herritarrei kanpainan parte hartzera: "Animatu eta eman irribarre bat gerratik ihesi dabilen haur bati".

Irrifuxiatuak izeneko kanpaina jarri du abian Hotz-Oñatik errefuxiatuen kanpalekuetan dauden haurrei laguntzeko asmoz. Haur hauen ikaskuntza prozesua etenda geratu zen sorterrria utzi behar izan zutenean, eta orain eskolatzeko prozesua abian jarri nahi dute, eta horretarako eskola

materiala behar dute. Horregatik, motxila solidarioak batzeko kanpaina jarri du abian Hotz-Oñatik. Helburua da, herriko neska-mutikoek erabiltzen ez dituzten motxilak bidaltzea, eta ahal bada, eskola materialarekin (koadernoak, margoak, arkatzak...). Horrez gain, bi kaltzetin pare berri

eta pare bat kantzontzilo edo kulero berri, eta negurako erropa (guanteak, bufanda edo txapela) ere eskatzen da. Jostailu txikiren bat, eta argazki edo marrazkiren bat sartzea ere polita izan liteke, ekimena humanizatu eta haur errefuxiatuei irribarre eragiteko.

Nork bere ikastetxera edo

HELBURU BIKOITZA
Haur errefuxiatuei laguntzeaz gain, beste helburu bat ere badu kanpaina honek: gure haur eta gazteengan errefuxiatuek bizi duten egoera larriarekiko enpatia sortzea, eta munduko injustizien aurrean ezer egin gabe ez gelditzea.

Oineko tratamendu osoa
KAILUAK ONDDOAK AZAZKALAK
PAPILOMAK GOGORGUNEAK...

Neurrira egindako silikonak
Oineko miaketa, plantilak

Podóloga
Marta Frances Barbero
Categorizada Nº. 03889033A

Ebreko Zerbitzuak

644 136 419 | Kale Zaharra Nº 5 beh. esk. OÑATI | martafrancespodologa@gmail.com

JON SOBA ETA MADDI TXINTXURRETA / Grezian egon dira 'Zaporeak' ekimenean laguntzen

“Egunero 1.600 errefuxiaturi jaten ematen genien”

Udako opor egunak baliatuz, Grezian izan dira Jon Soba eta Maddi Txintxurreta oñatiarrak, gerratik ihesi dabiltzen errefuxiatuei laguntzen. Konkretuki, Turkiatik gertu dagoen Chios irlan izan dira, Intxaurrendoko Gastronomia elkarteak bertan duen *Zaporeak* izeneko ekimen solidarioan laguntzen.

Chios irlan errefuxiatuentzako hiru kanpaleku daude, eta horietako bitan batzen diren 1.600 pertsonentzako otorduak prestatzen dituzte egunero *Zaporeak* proiektuko bolondresak, lan bikaina eginez.

Sukaldari laguntzaile lanetan ibili da bikote oñatiarra. “Goizeko 7etan hasten ginen patatak eta bestelako barazkiak zuritzen eta txipitzen. Gero, 11etan janaria bandejatan jartzen genuen, eta

Hurrengo orrira



Jon Soba eta Maddi Txintxurreta oñatiarrak errefuxiatuentzako otorduak prestatzen egon dira Greziako Chis irlan abuztuaren 2tik 10era.



eguerdiko ordubaterako kanpalekuetara joaten ginen furgoneta batean janaria banatzera. Gero, geuk bazkaldu, sukaldea garbitu eta arratsaldeko 4,30ak alderako amaitzen genituen eguneroko lanak” azaldu digu Sobak. “Gu egon garen egunetan 17 lagun ibili gara lanean, baina normalean 13-14 izaten dira. Oso lan ona egiten ari dira, beharrezkoa; egunero 1.000 kaloriako bazkariak prestatzen dituzte. Afariak beste GKE bat arduratzen da”.

Arratsaldetan, herriko taldeek haur errefuxiatuentzat antolatzen zituzten aktibitate eta tailerretan parte hartzen zuten: igeri egiten irakasten, umeekin jolasean, edo hizkuntzak lantzen, besteak beste. “Kanpalekuetara ere joaten ginen, errefuxiatuekin egotera eta bizi-erperientziak konpartitzera” azaldu digu Sobak. “Siriarrak ziren gehienak, kurduak eta afganiarrak ere asko, eta baita afrikarrak ere (Eritrea, Ghana, ...). Gerratik eta Daesh-en hatzaparretatik ihesi



Zaporeak proiektuko bolondresak janaria bandejetan jartzen, eta errefuxiatuen kanpalekuetan banatzen



dabiltzan pertsonak dira gehienak, goi mailako ikasketak dituztenak asko, baina egun batetik bestera sorterrria utzi beharrean aurkitu direnak”. Oraindik ere, egunero ontzi bat, gutxienez, iristen omen da Chios-era, eta mafiek beren lana egiten jarraitzen dute, egiaztatu ahal izan dutenez; “1.000 euroren truke Chios-etik Atenasera eramaten dituzte, eta 3.000 eurogatik Atenasetik Alemaniara”.

Kanpalekuetako bizi-baldintzak latzak direla esan digu Sobak, eta okerrena da luze joko duela. Beraz, errefuxiatuen drama ahaztu barik, laguntzen jarraitzea animatzen du jendea. Hara joan gabe ere lagundu daiteke hemen bertan. Hotz-Oñati bezalako taldeak egiten ari diren lana ere oso inportantea eta beharrezkoa da.

Jonek eta Maddik Hotz-Oñatik emandako 500€ eta boletoak salduz lortutako beste 1.000€ eraman zituzten kanpalekuetara, barruko erropak, oinetakoak eta higienarako produktuak erosteko.

HOTZ OÑATI

“Ezin dugu beste aldera begiratu”

Duela sei hilabete eratu zen HOTZ-OÑATI taldea, errefuxiatuen tragediaren aurrean laguntzeko asmoz. Lan handia egin dute hilabete hauetan, eta oso gustura daude herri mailan jasotako laguntzarekin, baina lanean jarraitu beharra dagoela gogorarazten dute. Grezian 50.000tik gora pertsona daude asilo-eskubidea tramitatu zain, bizi-baldintza oso gogorretan, eta elkartasuna lantzen jarraitu behar da, keinu txikien bidez bada ere. “Zoritxarrez, luze joko du oraindik arazo honek eta, dei egiten diegu herritarrei laguntzen jarraitzeko”.

LOKAL BILA

Tarteka, errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko materiala (janaria, higiene produktuak, eskola materiala...) batzen ari da Hotz-Oñati, baina ikusi dute dirua batzea ere beharrezkoa dela, Grezian bertan elikagai freskoak eta premiako beste gai batzuk erosi ahal ditzaten.

Helburu horrekin, Aloe Vera solidarioak eta txapak saltzen ari dira, eta itsulapikoak ere jarri dituzte herriko hainbat



taberna eta lantegitan. Eta dagoeneko 5.000 euro inguru bidali dituzte kanpalekuetara, pertsona ezagunen bitartez beti ere, dirua iristen dela ziurtatzeko.

Lan horrekin jarraitzeko, eskaratedun lokal baten bila dabil Hotz-Oñati, ahal dela herriko erdigunean. Salgai duten materiala erakutsi eta, bide batez, antolatzen diren ekintzetarako erreferentziazko gunea izango litzateke. Beraz, norbaitek lokalen bat uzteko modua izango balu, eskertuko lukete aldi baterako uztea.

‘HIMAYA’ PROIEKTUA

Himaya’ izeneko proiektuan ere laguntzen ari da Hotz-Oñati. Egoera delikatuenean dauden errefuxiatuei (haurdun edo ume txikiekin dauden emakumeak, adinduak, gaixoak...) Grezian bertan etxebizitzak alokatzen laguntzea da helburua, eta horretarako diru-baliabideak lortzea. Proiektu honetan lagundu nahi dutenei hilean euro bateko (urtean 12 €) ekarpena egitea eskatzen zaie. Dagoeneko 46 oñatiarrek bat egin dute proiektuarekin.

IKUSTEKO IRRIKITAN

Irailaren 29an estreinatuko da 'Odisea' filmaren bigarren zatia

Ez da Oñatin egiten den aurreneko pelikula, baina bai orain arteko produktorik potoloena. Eta ikusmin handia piztu du. Baina egun batzuk itxaron beharko dugu oraindik pantailan ikusteko, hilaren 29an estreinatuko baita ofizialki '2057. Odisea bat kanposantuan' filmaren bigarren zatia, txosna gunean.

Ordurarte itxoin nahi ez dutenek hilaren 17an izango dute aukera, aurre-estreinaldia egingo baita Santa Ana aretoan (22:00). Txokolateixan eta Boga, Arrano, Luis eta Ona tabernetan daude salgai sarrerak 5 eurotan. Proiekzioaren ondoren pelikulako lantalde osoak Gaztelekuan egingo duen festan parte hartzeko aukera ere emango du sarrerak.

ORDUBETE PASAKO IRAUPENA

Oraindik ez dugu ezagutzen pelikula berriaren titulua (erabaki gabe zegoen aldizkaria ixteko orduan), baina 60-70 minutuko iraupena izango du. Luzemetrai baten pare, ia ia. Eta kontuan hartuta 80 aktorek, 100 bat figurantek eta 40 laguneko lantaldeak

HILAREN 17AN EGINGO DA AURRE-ESTREINALDIA. TXOKOLATEIXAN ETA BOGA, ARRANO, LUIS ETA ONA TABERNETAN DAUDE SALGAI SARRERAK 5€-TAN

parte hartu duela, bistan da produkzio "potente" baten aurrean gaudela, Kepa Aranburu zuzendariak azaldu digun moduan; "lokalizazio asko ditu, aktore pila bat, gabeko nahiz eguneko eszenak, barrualdeko zein kanpoaldekoak... Superpro-

dukzio asko egongo dira hau baino xumeagoak".

Uztailean zehar egin zituzten filmaketa lanak. Hamabost bat grabazio egun izan ziren, luzeak eta gogorrak, baina oso gustura daude egindako lanarekin. "Egun eta ordu asko eman genituen grabatzen, eta zaila izan zen uneoro animoari goian eustea" azaldu digu Aranburuk; "baina jendearen erantzuna bikaina izan da. Herriko jende askoren elkarlanari esker atera dugu proiektua aurrera, azuolanean. Horixe zen helburuettako bat, eta oso esperientzia aberasgarria izan da".

SINOPSISIA

Duela hamahiru urte grabatu zen '2057. Odisea bat kanposantuan' film laburraren prekuela da oraingo hau. Urbiako fondako bokata lehiaketan parte hartzen duten bi laguneren istorioa kontatzen zuen hark. Oraingoan, denboran atzera egingez, bi protagonisten arteko adiskidetasuna nola sortu zen, eta bokata lehiaketara sailkatzeko gaitasuna beharko dituzten probak kontatzen ditu.



**80 AKTOREK, 100 BAT
FIGURANTEK ETA 40 LAGUNEKO
LANTALDEAK
PARTE HARTU DU PELIKULAN**





ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA berrikuntzekin dator aurten

**Txakurren agility
erakustaldia,
artisauak eta herriko
ardi gazta dastatzeko
aukera ere egongo da
San Martin inguruan
IRAILAK 25, 10:30**

Berrikuntza ugarirekin dator irailaren 25ean jokatuko den Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa, 57.a. Berez izan ohi da ikusgarria artzainaren eta txakurraren arteko elkarlana ikustea. Baina azkenaldian behera egin du ikusle kopuruak, eta, beraz, ikuskizuna osatzea erabaki dute antolatzaileek, jendea erakartzeko asmoz.

Hala, artzain txakurren txapelketa ikusteaz gain, *Agility* erako erakustaldiaz gozatzeko aukera egongo da. 'Master Can' taldeko txakur-hezitzaileek proba ezberdinak egingo dituzte (saltoak, tunelak, sigi-sagak, obediencia, jolasak...) arlo ezberdinetan (asistentzia, erreskatea...) trebatutako txakurrekin. Futbolearen jolasten edota marrazkiak egiten dakiten txakurrak ere ikusiko ditugu lanean.

Ardiak gobernatzen ez ezik, beste arlo batzuetan txakurrek duten abilezia ikusteko aukera egongo da San Martingo autokarabaren apartakaleku inguruan, modu dibertigarri eta parte hartzailean. Ikusleek ere parte hartze zuzena izango dute azken proban.

Bestalde, txakurren ilearekin lana egiten duen Conchi Moreno artisaua, eta herriko tailaginak ere egongo dira bertan. Gainera, txosna bat ere jarriko dute antolatzaileek eta herrian egiten diren ardi gaztak dastatzeko aukera egongo da bertan. Taloginak ere egongo dira.

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Onati



**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Jose Mari Bengoa eta Miriam Ugarte, artzain txakur txapelketaren antolakuntza taldeko kideetako bi

“Santa Lutzia inguruan goiz-pasa polita egiteko aukera ugari egongo da”

Beraz, aukera zabala egongo da Santa Lutzia inguruan goiz-pasa polita egiteko. Sarrera, 3 euro (12 urtetik beherakoak doan).

Bestalde, gazteak artzain txakur txapelketara erakaritzeko helbuarekin, beraiei zuzendutako erakustaldihitzaldi bat ere egingo da irailaren erdi aldera, herriko ikastetxeekin elkarlanean.

14 TXAKUR LEHIAN

Artzain txakurren txapelke-

tari dagokionez, 14 txakur ariko dira lehian. Gilles Etchegoen (Behe Nafarroa) eta *Gaua* iazko irabazleek, Hego eta Ipar Euskal Herriko, Bearneko, Frantziako, Castelloneko, Mallorkako eta Kataluniako txapelduinak izango ditu aurrez aurre. Frantziako ordezkaria emakumezkoa izango omen da.

Jose Mari Bengoa ere saiatuko da parte hartzen iaz bezala, baina txartela lortu beharko du Gipuzkoakoan.



ASKOTARIKO IKUSKIZUNA

Ardiak gobernatzen ez ezik, beste hainbat zereginetan txakurrek duten trebezia ikusteko aukera egongo da. Txakurren ilearekin lan egiten duten artiasuen lana ere bertatik bertara ikusi ahal izango dugu.

PREZIO ONENAK

San Martin
Lehenengo fasea prest!

italde
Ramón Irizar Kalea, 2
T 943 78 27 07
www.italde.com



San Juan Artiako ermita egon zen gunea, 1992an. (Argk.: guregipuzkoa.eus)

San Juan Artiako indusketei buruzko HITZALDIA

losu Etxezarraga arkeologoak hitzaldia emango du irailaren 13an (kultur etxea, 19:00), San Juan Artian orain arte egin-dako aurkikuntzen, eta aurten egingo dituzten indusketa lanen inguruko argibideak emateko.

XII. mendeko aztarnak aurkitu dituzte San Juan Artian

Indusketa berriak egingo ditu Etxezarraga arkeologoak urrian. Bertan herrixkarik izan ote zen aztertu nahi du.

XII-XIII. mendekoak izan daitezkeen zeramika zatiak eta XIII-XIVkoak omen diren giza-hezurak aurkitu ditu losu Etxezarraga arkeologo donostiarrak San Juan Artian. Iazko irailean egindako kata arkeologikoetan aurkitu zituen aztarna horiek, garai batean ermita izan zen eraikinaren barrualdean. Eta kanpoaldean ere, 23 metrora dagoen tontor txiki batean egindako miaketan, Erdi Aroaren erdialdeko materiala aurkitu zuten.

Aztarnategiaren interesa eta antzinakotasuna frogatuta, aurten indusketa lan sakonagoa egiteko asmoa du Etxezarragak. Foru Aldundiaren eta Oñatiko udalaren baimenak lortuta, urrian egingo ditu lanok bizpahiru astez.

ANTZINAKO POPULAKETAK
Antzina San Juan Artian herrixkaren bat egon ote zen aztertzea da indusketa lan hauen helburua, eta Etxezarragak duela sei urte hasitako



Goian, losu Etxezarraga, Sanpedrpburuko (Bidania-Goiatz) ermita inguruan egiten ari den indusketa lanetan. Behean, Artiako kata arkeologikoan aurkitutako zeramika zatiak.



XII-XIII. mendeko zeramika zatiak, eta XIII-XVko giza hezurak aurkitu dituzte San Juan Artian


ikerketa lan orokr baten baitan kokatu behar dira. Elizak eta erlijiotasunak gizartearen populaketa ereduaren izan zuten garrantzia aztertzen ari da arkeologo donostiarrak. “Elizak gure herrien garapenean izan zuten garrantzia oso handia izan zen. Giza elkartearen bizkarrezur izatera iritsi ziren Erdi Arotik XX. mendera arte. Horregatik, tenpluen arrastoak ikertzeak antzinako giza taldeen populaketa modua eta antolaketa soziala berreraikitzeak aukera ematen digu” azaldu digu Etxezarragak. “Badakigu San Juan Artiako ermita XV. menderako eraikita zegoela, baina iaz egin-dako kata arkeologikoei esker badakigu orain dela 800 bat urtekoak izan daitezkeen giza-bizitzaren aztarnak daudela. Beraz, bertan giza-komunitate bat biz izan ote zen aztertu nahi dugu. Azken batean, lurraldeko herriak nola sortu ziren jakitea da helburua, eta desagertu ziren herrixkak bilatzea”.

San Juan Artian bezalaxe, Gipuzkoako beste hainbat eskualdetan ere egiten ari da indusketa lanak, eta garrantzi handiko aurkikuntzak egin ditu, bereziki Bidania-Goiatzen, VIII. mende hasierako giza aztarnak aurkitu baitituzte bertan. Azpimarratzekoa da, gainera, San Pedroburuko aztarnategi hori 700 bat metroko altueran dagoela, San Juan Artian bezalaxe. Beraz, Oñatiko historiako pasarte berri bat argitzeko atarian egon gaitzke.

Bidegorriak euskararentzat ULMAN

Euskararekin daukan konpromisoa gizarteratu eta Oñatiko herriarekin konpartitzeko ekitaldia antolatu du ULMAk

ULMAz ULMA, 'EUSKARA PLAZARA'



**IRAILAREN 23AN HURBILDU BIDEGORRIRA!
HURBILDU EUSKARARA!**

Zubillagako errotondatik Oñatiko plazarainoko bidea egingo da irailaren 23an (16:30), ULMAko lantegiak lotzen dituen bidegorrian zehar, euskararentzako bidegorriak aldarrikatuz. Herritar guztiak daude gonbidatuta bidea egitera, bizikletaz, oinez, patinetez edo norberak nahiago duen moduan.

ULMA Fundazioak eta ULMAko Motibazio Taldeak **'Bidegorriak euskararentzat'** izeneko ekintza soziokulturala antolatu dute. Helburua da ULMAk euskararekin daukan konpromisoa langileen artean sozializatzea, eta konpromiso hori gizarteratzea eta Oñatiko herriarekin konpartitzea.

Izan ere Oñati arnasmune da euskararentzat, eta ekintza honen bidez ere horixe aldarrikatu nahi da: Euskarak bidegorriak (arnasa hartzeko gunek) behar dituela, eta ULMAk bere ekarpena egin nahi duela lan-arloan euskarari bidegorriak eskainiz, lanean euskara gero eta gehiago erabiliz.

Konpromiso hori gizarteratzeko asmoz, irail erdialdera, ULMAko pertsona erreferenteak Oñatiko ikastetxeetara joango dira LH6-ko umeei ULMA ezagutzera eman eta euskararen normalizazioari egiten dion ekarpena azaltzeko.



Eta, konpromisoaren eta kooperazioaren bidetik, irailaren 23an bidegorriak euskararentzat izango dira, jendez eta konpromisoz beteko baitira bidegorria eta Oñatiko plaza. Ospakizuna jai giroan egingo da, Amaia Txintxurreta DJ-arekin batera, eta KALAKAN musika taldearen kontzertuarekin emango zaio amaiera jaiari.

URTE ASKOTAKO LANA

ULMAren balio kooperatiboen baitan kokatzen da euskal kultura eta euskara sustatzeko konpromisoa. Ildo horretan ULMAk bere ekarpena egin nahi du, lan arloan euskara gero eta gehiago erabiliz. Urteak dira ULMAN euskara planak martxan jarri zirela, eta hainbat sentsibilizazio eta motibazio ekintza egiten dira urtero langileen artean euskararen aldeko jarrerak eta portaerak sustatzeko asmoz.

BIDEGORRIAK EUSKARARENTZAT ekimenerako sortu duten logoa. Ulmako lantegiak lotzen dituen bidegorria irudikatzen du kolore gorriak. Alboan doan erreka, kolore urdinak, langileen ideiak ureztatzen dituena, eta inguruko lurra marroiak, bertan sendo sustraituta baitaude kooperatibak. Egilea: Irene Goitia (Ulma Packaging)

IRAILAREN 23KO EGITARAUA

16:30 'ULMAz ULMA, EUSKARA PLAZARA!'

Zubillagatik Oñatira, bidegorrian zehar, bizikletaz, patinetez, oinez, korrika...

18:30 EUSKARAREN MURALAK.



Oñatiko plazan ULMAko Euskararen Muralak jarriko dituzte, eta hosto-pegatinen bidez herritarrek euskararekiko konpromisoak idazteko aukera izango dute.

19:00 AMAIA DJ



Musika eta dantza herriko plazan, Amaia Txintxurreta-ren eskutik.

22:00 'KALAKAN'



Ipar Euskal Herriko taldearen kontzertua Mikel Goiaingeruaren parrokan. Perkusioa eta ahotsen bidez kantu herrikoien moldaketak egiten dituen taldea. Elkartasun proiektu baten aldeko diru-batzea egingo da, ULMAren 55. urteurrena ospatzeko.

MIGUEL MARTIN | Mendigoizalea

“Aizkorrira igotzen ez naizen egunetan faltan botatzen dut”



AIZKORRIRA IGOERAK

2012an > 239 igoera

2013an > 273 igoera

2014an > 205 igoera

2015an > 209 igoera

Beti izan da mendian ibili zalea Miguel Martin, sortzez *Mogátar de Sayago* (Zamora) herriko oñatiarra. Baina azken bost urteotan afizio hori ia ia obsesio bihurtu dela ere pentsa liteke, ia egunero igotzen baita Aizkorrira.

Baina ez omen du egiten inor baino gehiago dela erakusteko, gustura sentitzen delako baizik. “Fondako lagunak tematu izan ez balira, inork ez zuen jakingo honen berri” argitu digu.

Bidea oso elurtuta edo izoztuta dagoen egunetan izan ezik, ia egunero igotzen da Aizkorrira; eta bestela Urbiaraino. Iaz, adibidez, 346 egunetan igo zen Urbiara, eta 209 aldiz Aizkorrira.

Goizeko lehen argiarekin batera abiatu ohi da, eta bi orduetan egiten du Sindikatik Aizkorrirako bidea. Gurutzerara iritsi, paisaiatz gozatu eta buelta. “Poztasun berezia sentitzen dut hara iristean. Ezin da hitzez adierazi. Gora igotzen ez naizen egunetan faltan botatzen dut” aitortu digu. Igo, beti Arbelarretik gora igotzen da; beherakoan aldiz, batzutan Oltzatik, San Adrianetik edo arabarren bidetik ere jeisten da.

Hori gutxi balitz, egunean zehar beste bi paseo egiten ditu herri inguruan. Danera sei ordu ibiltzen da egunean. “Gorputzak laguntzen didan bitartean jarraituko dut”.

Miguel 66 urte ditu eta 24 urte zituela iritsi zen Oñatira, Olateko zentrallean lana egitera eta bertan jardun du jubilaziora arte.

Miguel Martin Aizkorrirako tontorrean (Argk.: Aritz Altube)

ANE MERTZERIA

- Jostako zerak
- Lantzeria
- Umuen jantzak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Irailaren 17an egingo da Oñatiko II. Mendi Martxa



► Bi ibilbide egongo dira aukeran: luzea (37,5 km) eta motza (27 km)

Iaz bezala, aurten ere Oñatiko Mendi Martxa egingo da, heriko mendizale talde batek antolatuta. Irailaren 17an izango da, eta bi ibilbide egongo dira aukeran: luzea, (37,5 km) eta motza (27 km). Aparteko zailtasunik gabeko ibilbideak dira, edozeinek egiteko modukoak. Ibilbidean zehar 3 anoa postu egongo dira, edateko eta jatekoekin.

ERREFUXIATUEN ALDE

Izen-ematea irailaren 11rarte egongo da zabalik, Aloña Mendi tabernan, edo Kirol-probak webgunean. Mendi federatuek 10€ ordaindu beharko dute,



Iaz 520 lagunek parte hartu zuten Oñatiko I. Mendi Martxan

eta federatu gabe daudenek 12€ (aseguroa kontratatzeko). Egunean bertan izena emateko aukera ere egongo da, baina 3 euro gehiago ordainduta (13€ / 15€). Aurten izen-emate bakoitzeko euro bat bideratuko da errefuxiatuen alde lanean diharduen HOTZ elkartearantz.


Gogoratu, Oñatiko mendi martxa ez dela kompetizioa. Lagun artean edo familian goiz eder bat pasatzea da helburua, mendiaz eta naturaz gozatzuz, eta mendia errespetatuz beti ere. Iaz 520 lagunek parte hartu zuten, eta balorazioa oso ona izan zen, bai antolatzaile eta baita partaideen aldetik. Ea aurten ere egun eder bat igarotzeko modua dugun. Animo!



IBILBIDE LUZEA / 37,5 km / 1.700 m (+)

Oñati - Urrexola - Aitzulo - Aitzgain (AP) - Ugastegi - Zamalbide - Usakoetxe (AP) - Burgamendi - San Juan Artia - Auzoetxia (AP) - Uribarri - Berezao - Oñati

AP: anoa postua



IBILBIDE MOTZA / 27 km / 1.300 m (+)

Oñati - Urrexola - Aitzulo - Aitzgain (AP) - Araotz - Maña - Aizkirri - Auzoetxia (AP) - Uribarri - Berezao - Oñati

MENDI IRTEERA ALOÑA MENDIREKIN - irailak 24/25

Asteburuko irteera Piriniotara

Irailak 24: La Pierre St Martin -GR10-Laberouat aterpetxea (Lescun)

Irailak 24: Laberouat-Anie-Anielarra-Contienda

Piriniotako bi ibilbide klasiko proposatzen ditu Aloña Mendiko mendi sailak irailerako. Larunbatean 12,5 km inguruko (+500m.) ibilaldia GR-10 bideari jarraituz. Gaua Laberouat aterpetxean igaro ostean, igandean Auñamendira eta Añielarrera igoko dute, La Contiadako iraupen eskiko pistetara jeisteko (17 km. /+1500m.)

Oñatitik goizeko 6,30etan irtengo da autobusa, Korreos parean. Izena emateko epea, irailaren 20ra arte. Bazkideak 60€, ez-bazkideak 70€, langabetuak 50€. Federatuta egon behar da. Gehienez 25 pertsona.



Uztailean Posests tontorrean ateatako argazkia

EUSKALTEGIA



Ainhoa Segura, Ernesto Murgiondo, Roberto Altuna eta Koldo Zumalde, euskaltegiko irakasle taldea euskaltegiko atarian, Bedita Larrakoetxearen argazkia atzean dutela

2016/17 ikasturteko matrikula aldia zabalik

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko.

Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze maila ezberdinak, titulu ofizialak (EGA eta administraziorako Hizkuntz Eskakizun mailak -1, 2, 3 eta 4-), lortzeko ikastaroak, etorkinei edo ostalariei zuzendutakoak, Oñatiko euskara lantzeko....

Maila eta behar guztietara egokitutako ikastaroak aurkituko dituzu euskaltegian, ordu-tegi aukera zabalarekin.

UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta 18- 943782496

euskaltegia@onati.eus

NIEVES GOMEZ



“Hasieran zaila iruditu zitzaidan, baina orain asko gustatzen zait euskara”

“ Jaengoa naiz eta orain dela hiru urte iritsi nintzen Oñatira. Bi urteko semea daukat, eta handitzen denean ez dut nahi analfabetoa naizela pentsatzea, eta eskolako lanetan lagundu nahi diot. Horregatik ari naiz, euskara ikasten. Gainera, lana aurkitzeko ere lagungarria izan daitekeela uste dut. Hasieran zaila iruditu zaitzaidan euskara, baina orain asko gustatzen zait, eta ari naiz ikasten, poliki poliki. Oso gustura nabil euskaltegian. Oso giro ona dago. Gainera, herriko kultur giroa hurbiltzeko bidea zabaldu dit.

WILLY MAZZAU



“Integratzeko ezinbestekoa iruditzen zait euskara ikatea”

“ Italiarra naiz eta orain dela bi urte iritsi nintzen Oñatira. Aurretik lau urte eman nituen Gasteizen. Orain dela lau urte hasi nintzen euskara ikasten. Euskal Herrian bizi naizenez, uste dut beharrezkoa eta ezinbestekoa dela euskara ikatea bertan integratzeko, batez ere Oñati bezalako herri batean. Oraingoz HABEren 2. maila atera dut, eta etorkizunean EGA ere atera nahi nuke. Baina, oraingoz, hitz egiteko maila ona lortzea da helburua. Euskaltegian oso gustura ari naiz, eta jarraitu egingo dut, zalantzarik gabe.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oñati 17. beheko esk. / Tel: 702 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
inmobiliari gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

“Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilini bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei jezaguzu”.

CURSO 16/17 IKASTURTEA UDAL EUSKALTEGLIAK
euskara klaseak • clases de euskera

erabili euskara utiliza el euskera

EUSKALDUNTZE IKASTAROA:

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailetakoak.

IKASTARO BEREZIAK:

AISA, OSTALARITZA...

OÑATIKO EUSKARA**EKINTZA OSAGARRIAK****AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN**Eskaerari egokitutako **erritmo** eta **ordutegiak**.**OHIKO BEKA SISTEMAZ GAIN**Iraupen luzeko **langabetuek** doan.**MATRIKULA EPEA** Irailak 1-21

9:30-13:30 / 16:00-18:30

Oharra: Matrikulatzen direnen artean matrikula baten zozketa egingo da. Matrikula on-line ere egin ahal izango da.

BEATRIZ TELLERIA



“Urtebetean hobekuntza handia nabaritu dut nire euskara mailan”

“Iazko udazkenean hasi nintzen euskaltegiara etortzen. Lanean ez didate exijitzen perfila, baina nire lankide askok aterata daukatela ikusita, ni neu ere animatu egin naiz. Aurten HABEren lehen maila ateratu dut, eta orain bigarrena ateratzen saiatuko naiz. Oso gustura nabil euskaltegian. Nire hiztegia asko aberastu da eta, oro har, hobekuntza handia nabaritu dut urtebetean. Taldean oso giro ona dago eta esperientzia oso polita izaten ari da. Euskaldun zaharrok ere asko hobetu dezakegu gure euskara maila.

IÑAKI OLALDE



“EGA titulua ateratu nahi nuen, eta aziertoa izan da euskaletgira etortzea”

“EGA agiria edo HABEren baliokidea eskuratzeko helburuarekin hasi nintzen iaz euskaltegian. Neure aldetik prestatzen ibili barik, euskaltegiara etortzea erabaki nuen, laguntza izango nuelako eta, akaso, seriotasun gehiagorik hartuko nuelako. Eta uste dut bete-betean asmatu dudala. Irakasleen aldetik prestutasun handia aurkitu dut, beti laguntzeko prest, eta lanketa polita egin dugu azterketara begira. Askotan uste dugu euskaldun zaharrok dena dakigula, baina ez da horrela. Nik asko ikasi dut urte honetan.

MAIDER GURIDI



“Oposaketak prestatzen ari naiz eta 4. mailako titulua ateratu nahi nuen”

“Administraziorako oposaketak prestatzen ari naiz, eta 4. mailako titulua ateratzeko helburuarekin eman nuen izena euskaltegian, HABEk egiten duen deialdira aurkezteko. Orain dela urte asko ateratu nuen EGA agiria, eta euskaraz irakurtzen-eta jarraitu badut ere, hutsune ugari neuzkan, eta aukera ona izan da eguneraketa bat egiteko euskarari dagokionez. Gainera, 4. mailako titulua lortzeko proiektu bat idatzi behar denez, nire gustuko gai batean sakontzeko aukera izan dut, eta oso aberasgarria izan da.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTETAKO ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

S distira
estetika zentrua

Irailtik aurrera,
GINNASIA EMOZIONAL INTEGRALA
Informazio gehiago
hemen...

San Lorenzo 4. behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

BERBALAGUNA



Tarsicio, Sagrario, Isabel, Julen eta Carmelo, Berbalaguna ekimeneko taldeetako bat

Joan zen ikasturtean 19 lagunek parte hartu zuten Berbalaguna ekimenean, 5 taldetan banatuta

Euskara praktikatu nahi baduzu, eman izena Berbalagun taldeetan

Orain dela hiru urte jarri zen martxan Berbalaguna ekimena, Oñatin, udaleko Euskara sailak eta Euskaltegiak sustatuta. Euskara ikasten ari diren herritarrei laguntzea da helburua, euskara praktikatzeko aukera emanez. Horretarako, laupabost laguneko taldeak osatzen dira, eta astean egun batez elkartzen dira, beraiek adostutako egun, ordu eta lekuan, euskaraz hitz egiteko eguneroko gaien inguruan. Talde bakoitzean euskaraz hitz egiteko ohitura duen herritar bat (berbalaguntzailea) egoten da, zalantzak argitu eta elkarrizketan laguntzeko. Herriko jaien ondoren berriz jarriko dira martxan Berbalagun taldeak. Beraz, euskara praktikatu nahi baduzu, edo euskara ikasten ari direnei lagungu nahi badiezu, eman izena udal euskaltegian irailaren 7tik 23ra bitartean: 943782496.

**BERBALAGUN TALDEAK
ASTEAN BEHIN ELKARTZEN
DIRA, GUTXIENEZ
ORDUBETEZ, EUSKARAZ
BERBA EGITEKO**

ISABEL REBOLLO / Berbalaguna



“ Bi ikasturte daramat Berbalagun taldeetan parte hartzen, eta balorazioa oso positiboa da. Asteartero elkartu izan gara ordu eta erdiz, kafe baten bueltan, eguneroko albiste eta kontuei buruz berba egiteko. Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen du, modu naturalean. Etxean ez daukat euskaraz hitz egiteko aukerarik, eta, beraz, Berbalaguna taldea oso lagungarria da. Gainera jendea ezagutzeko aukera ematen du, eta oso aberasgarria da.

“Euskara modu naturalean praktikatzeko aukera ematen du”

JULEN KORKOSTEGI / Berbalaguntzailea



“ Bi urte daramatzat Berbalagun taldeetan laguntzen. Ekimen interesgarria iruditzen zait. Euskara asko baloratzen dut eta, azken batean, euskararen alde nire aletxoa jartzeko modu bat da, euskara praktikatu nahi dutenei lagunduz. Ez da lotura handia (ordu eta erdi astean) eta taldekideek eskertu egiten dute gure aportazio txiki hau. Gainera, pertsonalki ere oso aberasgarria da, hartu-eman horretan beti ikasten delako zerbait beste personengandik.

“Euskararen alde nire aletxoa jartzeko modu bat da”

LAURA PEREDA / Berbalaguna



“ Hasieratik nabil Berbalagun taldeetan. Etxean ez daukat euskara praktikatzeko aukerarik, eta beraz, niretzat oso lagungarria da beste pertsona batzuekin eguneroko kontuei buruz euskaraz berba egin ahal izatea. Aurten hiru lagun izan gara taldean, eta, aukeran, uste dut hobe izango litzatekeela taldeak pittin bat handiagoak izatea. Baina, oro har, balorazioa positiboa da, eta niretzat behintzat oso lagungarria gertatzen da.

“Bestela ezin dut euskara praktikatu. Niretako oso lagungarria da”

ESKAITZA BEREZIAK

Qualma, Beranduak, Lantze

5. URTEURRENA



Pellet berogailuak



Bainurako altzariak



Zelulosazko isolamenduak


Inurritegi
ITURGINTZA

Kale Zaharra 17 - behea
Tel.: 943 71 82 49 / 635 74 62 26

e.inurritegi@gmail.com

www.inurritegi.com

UDALEKO BATZORDEAK



Kultura batzordea

German Meabebasterretxea (teknikaria), Leire Zumalde (EH Bildu), Nerea Zubia (EH Bildu) batzordeko burua eta Amaia Erostarbe (EAJ)

Oso lanpetuta dabilta egunotan udaleko Kultura batzordeko kideak, San Migel eta Errosarixo jaiak eta irailean zehar izango dugun kultur ekitaldi andana antolatzen. Batzordeko buru Nerea Zubiak azaldu digu nola izaten den antolakuntza prozesua, eta zein diren esku artean dituzten egitasmoak.

DATUA

**914.634 euroko
aurrekontua du
(osoaren %4,60)
Kultura sailak**

raua ia prest izan ohi dugu, azken orduko moldaketaren bat salbu. Jai-egun bakoitzak bere izaera oso markatua du eta ez da erraza izaten urtetik-urtera berrikuntzak txertatzea, baina azken urteotan egin ditugun hainbat berrikuntza-aren harrera benetan ona izan da: Atzeko Kaleko jai-gunea, gaztetxoaren eguna (tirolina...), Herri Bazkarian herriko produktuak txertatzea, ... eta bide horretan jarraitzea da gure asmoa.

Oporretatik bueltan, herriko jaiak begira daude honezkero herritarrek. Prest al dago egitaraua?

Prozesu luzea izaten da jaien antolakuntzarena eta lan handia eskatzen du. Ekainean jarri genituen herritarren proposamenak jasotzeko buzoiak eta ondoren egin genuen Jai Batzorde Irekia. Bertatik jasotakoekin hasten gara programa osatzen. Jai egunetan gozatzaren ditugun ekitaldien kontratazioaz gain, paralelo, bestelako ezkutuko lan asko ere egin behar izaten dira: azpie-



NEREA ZUBIA
KULTURA
batzordeko burua

“**Jaietan azken urteotan sartu ditugun berrikuntzek harrera ona izan dute: Atzeko Kaleko jai gunea, gaztetxoaren eguna, herri bazkarian bertako produktuak jartzea...**

giturak, herriko eragileen koordinazioa, azal-lehiaketa, departamentuen arteko antolakuntza, aurrekontuaren kudeaketa, etab. Beraz, 6 egu-

netako festa leherketak, atzetik pertsona askoren inplikazioa eta lanordu asko eskatzen ditu.

Uztaila amaierarako, egita-

Nagusien danborradaren antolakuntzaz arduratuko den lantaldea sortu duzue, ezta? Azken 2 urteetan, danborradan parte hartzen duten hainbat kidek hartu dute antolakuntzaren erreleboa. Aurten, ordea, antolakuntza-egitura hori egonkortu nahian Udalak bilerara batera deitu ditu parte-

MAPFRE
Oñati

Partu kale, 5
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 65

ARRI
Orain Oñatiarren zorlitzura!

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

NEREA ZUBIA | **Kultura batzordeko burua**

“ Ikaragarria da Oñatik kultur arloan duen potentziala, eta kultur eragileek herrigintzan erakusten duten inplikazioa txalogarria da.

hartzaileak, eta guztiok batera diseinatu dugu hemendik aurrerako eredu. Danborradako konpañia bakoitzak, antolakuntza taldean kideren bat egoteko derrigortasuna du eta eginkizunen zati bat bere gain hartzekoa. Udalak ere gune horretan parte hartzen du. Guretzat interesgarria da formatua, hala, herritarrak boteretu eta eurak parte hartzaile soilak izatetik euren autonomia eta, aldi berean, ardurak izatera pasatzen baitira.

Jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko prozesua ere abian jarri duzue. Nola? Zertan da?

Azken urteetan, jaietan ez ezik,

antolatzen ditugun bestelako ekitaldietan ere, eszenatoki gaineko emakumeen presentzia zaintzeari garrantzia eman diogu. Bai presentzia eta baita eszenatokian emakumeak betetzen duen paperari ere.

Hala ere, prozesu honekin urrats bat haratago joan nahi dugu. Pentsatu dezagun, zein da emakumeen/gizonezkoen protagonismoa, gaueko ekintzetan? Eta eguneko ekintzetan? Nor arduratzen da jatorduetat? Barraketan? Kontzertuetan? Haurrentzako ekintzetan? Antolakuntza batzordetan? etab.

Hala, jaiak egunerokoan emakumeok bizi dugunaren isla besterik ez dira. Beraz, hari

honi tiraka, aurtan, herriko jai nagusien diagnostikoa egingo dugu (ziurrenik, urtean beste hainbat jaietara ere trasladatzeko modukoa izango dena) eta aurrera begirako jai berdinzaleen aldeko estrategiak eta ekintzak proposatu eta herritarrekin batera identifikatuko ditugu. Nola ez, jaietan ematen diren genero indarkeri egoeren inguruko lanketa berezitua ere egingo da.

Herriko kultur eragileen arteko sinergiak bultzatzea da EH Bilduren helburuetako bat. Nola ikusten duzu herriko kultur dinamika?

Ikaragarri handia da Oñatik kultur arloan duen potentziala. Bai, kantite aldetik asko direlako kultur esparruan mugitzen diren herritarrak, baina bereziki, oso anitza delako, bai disziplinetan eta baita pertsonetan ere (adina, ideologia, jatorria...). Horrek esan nahi du autoeraketarako gaitasun handia dagoela eta

horren adierazle behinena Eltzian sortzen ari den bizitza da, kultur eragileez haratago, herriko bestelako eragileekin ere nahastuta. Taldeak euren jarduna aurrera eramateaz gain, herrigintzan erakusten duten inplikazioa berrant txalogarria da.

Kulturak jendartearen eraiki eta eraldatzeko gaitasuna duela ulertzen dugu, entretenimendu edo aisialdi soila baino askoz gehiago dela, alegia.

Azpiegiturei dagokienez, lan ezberdinak egiten diharduzue Santa Anan eta kultur etxean. Bai, alde batetik Santa Ana aretoko teilatua konpontzen ari gara, eta bestetik, kultur etxeako zine artean egoera txarrean dauden butakak tapizatu ditugu, eta goiko bilera-gela egokituko dugu. Bestalde, KzGuneko nabigazio gela goiko solairura igoko dugu, eta orain arte erabili izan duen espazioa liburutegiak berreskuratuko du.

AMAIA EROSTARBE / EAJko ordezkaria Kultura batzordean



“ Herriko plazak jaietako gune nagusia izaten jarraitu behar du, gure ustez.

Nola ikusten duzu herria kultura arloan?

Kultura-ekipamendu egokiak eta onak daude Oñatin, besteak beste, EAJ udal-gobernua egon den urteetan egindako inbertsioei esker: Kultur Etxea, bere zerbitzu guztiekin, Santa Ana antzokia...

Kultura-eskaintza zabala, aberatsa eta anitza dago Oñatin aspaldiko urteetan. Gainera, kultura-tradizio oparua eta parte-hartze dinamika ederra sortu da urteen joan-etorrian: musika-banda, txistulariak, Oñat, abesbatzak (Oñati Abesbatza, Parrokiko koruak, Ganbara...) bertso-eskola, musika eskola, musika-taldeak, mar-

go-taldea, eskulan-ikastaroak, sormenerako diru-laguntzak... Oñatiko udalak babes osoa eman izan die beti, lehen eta orain.

Hemendik aurrera, zer? Gure iritzian, ahalegina egin beharko da, batez ere, kultura-ekipamenduen mantentze-lanetan: Kultur Etxea barrutik eta kanpotik egoera onean edukitzea, Santa Ana Antzokiko komunak eta kamerinoak txukuntzen, eta ekipo teknikoak hobetzen...

Halaber, udal-liburutegiak ez dauka irakurle gazteentzako espaziorik, eta horren inguruan gogoeta egin beharko da, eta irtenbidea bilatzen hasi.

Gazteen irakurle-taldea

sortzea proposatu zenuen. Dagoeneko, abian da taldea. Zein da balorazioa?

Bai, gazteentzako (12-17 urte) irakurketa-kluba falta zen liburutegian, eta, ondorioz, eten egiten zen umetatik hainbeste sustatu den irakurzaletasunaren haria. Ez da ahaztu behar gaztetxo asko adin-tarte horretan hasten direla gutxiago irakurtzen edo ez irakurtzen.

EAJren ekimena Galtzagorrik Galdakaon bideratu duen egitasmoan oinarritu da; hala, *booktube* formatoa baliatuko da tertuliak egiteko. Arrakasta handia izan dute halako egitasmoek beste leku batzuetan. **Herriko jaiak ere badatoz.**

Ezer azpimarratu nahi duzu?

Askotariko aukerak eskaintzen dituen jai-egitaraua daukagu. Hala ere, guk oso argi dugu herriko plazak jaien gune nagusia izaten jarraitu behar duela. Horren harira, Gaztetxo Eguna Gazteleku aurrean antolatzea proposatu dugu Kultura eta Gaztedia batzordeetan, horixe delako 12-17 urteko gaztetxoenentzako leku naturala eta lekurik neutroena (kontsumoen prebentzioa...).

Horrez gain, gazteentzako ekitaldi gutxitxo antolatu izan da jaietan, gure ustez, eta aurtan honako proposamen hauek aurkeztu ditugu batzordeetan: gazteentzako kontzertu nagusi bat plazan edo elektrotxaranga kaleetan, gastronomiak ekitaldia eta jolasak (zakurkarrak, karta-jokoak...).

Miren Elgarrestak utzi egin du zinegotzi kargua. Bere lekua Nekane Maiztegi beteko du.

Iazko udal hauteskundeetan EAJren alkategaia izan zen Miren Elgarrestak utzi egin du zinegotzi kargua, arrazoi pertsonalak argudiatuta.

Udalbatza berria eratu berritan, diputazio-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasun-erako zuzendari kargua eskaini zioten Elgarrestari, eta ia urtebetez batera eraman ditu ardura biak, baina orain zinegotzi kargua uztea erabaki du. Oñatiko EAJren uriburu batzarrak eskertu egin dio urtebete honetako konpromisioa eta dedikazioa.



Nekane Maiztegi

Miren Elgarrestak utzitako lekua Nekane Maiztegi Ugartek beteko du. Enpresa Zientzietan lizentziatua da, eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultatean dihardu irakasle. Maiztegi eskertu egin du EAJk berarengan jarritako konfiantza, eta erronka berriari ilusioz, konpromisoz eta gogoz heltzen diola adierazi du.

Enpresa berriak sustatzeko eta langabetuak kontratatatzeko dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Herritarren ekintzailetasuna sustatu eta enpresa berriak sortzeko asmoa duten herritarrei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Oñatin enpresa jarduera berri bat abian jarri nahi duten pertsona fisikoak izan daitezke laguntza hauen onuradunak. Enpresaren bideragarritasun azterlana egiteko aholkularitza teknikoa, eta sortzen duten lanpostu bakoitzeko 1.500 euroko laguntza (3.000 euro lehen sektoreko enpresa bada) jaso ahal izango dute. Aurten 32.000 euroko diru atala bideratu du Udalak laguntza hauetara. Azaroaren 15era arteko epea dago eskaerak egiteko. Informazio gehiago udaleko Sozioekonomia zerbitzuan (Bidebarrieta 12 - 943037700)

LANGABETUAK KONTRATATZEKO DEIALDIA

Bestalde, 50etik behera langile duten herriko enpresa txikiei langabetuen kontratazioa errazteko dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Oñatin erroldatuta eta Lanbiden izena emanda dauden lagabeak izan behar dira. 2017ko maiatzaren 31 baino lehen hasi beharko dira lanean, eta, gutxienez, 6 hileko kontratua izan behar da.

Lanaldi osoko eta sei hilabete edo luzeagoa den kontratu bakoitzeko 1.000 euro jasoko ditu enpresak (1.300 euro, langabetua emakumea bada). Gainera, dirulaguntza %30 gehituko da, kontratatutako pertsona Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE/RGI) hartzailea bada, edo lehen enplegua lortzen duen 35 urtetik beherakoa bada, edo 55 urte baino gehiago baditu, edo epe luzeko langabea bada.

2017ko ekainaren 30erarte egin daitezke eskaerak udal bulegoetan.

Lankidetzeta hitzarmena sinatu dute Udalak eta Lege Soziologia Erakundeak

'Oñati Udala Grant' izena duen ikerketa beka batean gauzatuko da Udala eta Lege Soziologiaren Nazioarteko Erakundearen (LSNE) arteko lankidetzeta hitzarmen berria. Udalak 4.000 euroko ekarpena egingo du urtero, autogobernua, hiritartasun aktiboa edota naziogintzaren alderdi sozio-juridikoarekin lotura izango duen ikerketa proiektu bat egiteko. Mikel Biain alkateak adierazi du Udalak sostengua eman nahi diola Oñati nazioartean ezagun egin duen erakundeari, eta LSNEko Patronatoko zuzendari Ana Agirrek eskertu egin zuen Udalaren babesa.



Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuorde Ana Agirrek eta Mikel Biain alkateak sinatu zuten hitzarmena.



• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zehariztia, 25 • Tel: 943 71 63 60
www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zehariztia, 25 • Tel: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketak)

San Migel eta Errosarixo jaiak genero ikuspegitik aztergai

Herriko jaien diagnostikoa egingo da, jai parekideen alde etorkizunean hartu beharreko neurriak identifikatzeko

Udaleko Berdintasun sailak bultzatuta, San Migel eta Errosarixo jaien inguruko azterketa egingo da genero ikuspegitik, herriko eragile ezberdinekin lankidetzan. Helburua da, emakumeen eta gizonen parte-hartze baldintzak aztertzea, jai berdinzaileen alde etorkizunean hartu beharreko neurriak identifikatzeko.

Horretarako, jaien eduki sinbolikoak aztertuko dituzte, maskulinitate eta feminitate tradizionalako elementuak eta emakumeen partehartzea laguntzen duten elementuak identifikatuz. Jaien antolakuntzan eta ekintzetan emakumeen eta gizonen protagonismoa ere ebaluatuko da, eta jaietan ematen diren genero indarkeria egoerak ezagutu eta aztertuko dira.

Desiragarria den jai ereduaren inguruko hausnarketan herritarrak batzea da helburua, hauek kontzientziatuz, sentsibilizatuz eta beraien ekarpenak gehituz jai parekideen alde. Azken batean, jai berdinzaileen aldeko estrategiak eta ekintzak identifikatu eta proposatu nahi dira, herritarrekin batera.

Ikuspegi antropologikotik egiten ari da azterketa, herriko eragile ezberdinen parte hartzearekin. Dagoeneko hainbat lan egin dira, hala nola: jaiek loturiko dokumentazioaren azterketa; udaleko teknikariekin sakoneko elkarrizketak; formazio eta



sentiberatze saioak zinegotzi eta teknikariekin; eztabaida talde baten osaketa Jai Batzordeko eragileekin...

BEHAKETA LANA

Hurrengo urratsa jaietan bertan behaketa lana egitea izango da, berdintasun edo

UDALEKO BERDINTASUN SAILAK BEHAKETA EGITEKO TRESNA BAT ESKAINIKO DIE HERRIKO ERAGILEEI, BERDINTASUN EDO BERDINTASUN EZAREN ADIERAZPENAK JASOTZEKO

BEHAKETA NOLA EGIN ERAKUSTEKO BILERA IREKIA IRAILAK 20

Jaien diagnostikoa egiteko, behaketa-tresna bat jarriko du Udalak herriko eragileen esku, informazioa batzeko. Behaketa tresna hori nola bete behar den azaltzeko bilera irekia egingo da irailaren 20an (19:00) Euskaldun Berria aretoan (Bide-barrieta, 18). Gaietan interesa duten herritar guztiak daude gonbidatuta. Diagnostikoa ahalik eta zabalena izan dadin ikuspegi anitzak txertatu nahi dira. Animatu parte hartzera.

berdintasun ezaren adierazpenak jasotzeko asmoz. Horretarako, udaleko Berdintasun sailak behaketa tresna bat eskainiko die herriko eragileei, bakoitzak parte hartzen duen jaietako une edo ekitaldietako informazioa jaso ahal izateko.



AISIALDI BEGIRALE IKASTAROA

Titutulu ofiziala Oñatin eta euskaraz eskuratzeko aukera



Iazko ikasturtean aisialdiko begirale ikastaroa egin zuen neska-mutil taldea

Eusko Jaurlaritzak homologatutako Aisialdiko Begirale titulua Oñatin bertan eta euskaraz eskuratzeko aukera eskainiko du Oñatiko Udaleko Euskara-Hezkuntza sailak hirugarren urtez jarraian.

204 ordu teoriko eta 120 praktika ordu ditu ikastaroak, eta larunbatetan (9:00-14:00 eta 15:00-18:00) izango da, urriaren 15ean hasi eta apirilaren 8ra arte. Parte hartu ahal izateko baldintza da adinez nagusia izatea, edo 2017an 18 urte betetzea.

UDALAREN DIRULAGUNTZA

Ikastaroak 500 € balio du, baina Udalak dirulaguntzak emango ditu: langabetu edo ikasle direnei matrikularen %75, eta gainontzekoei %50. Horretarako, Oñatin erroldatuta egon behar da, eta %90etik

gorako asistentzia eta aprobetxamendu egokia eskatuko da.

Plaza mugatuak dira eta oñatiarrek izango dute lehentasuna, izen-emate hurrenkeraren arabera. Irailaren 23an amaituko da izena emateko epea, www.onati.eus webgunean.

UDALAREN DIRULAGUNTZA

Irailaren 15ean, osteguna (18:30) ikastaroari buruzko informazioa emateko bilera irekia egingo da Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta 18). Bestela, Udalaren Euskara-Hezkuntza sailean (Iñaki Akizu / 943780411 / iakizu@onati.eus), *Gaztelekuko informazio* puntuan eta www.onati.eus webgunean ere eskura daiteke informazioa. Ikastaro honek 4,5 puntuko balioa du Oñatiko udaleku irekietan begirale lanetan aritzeko deialdian.

Kale Zaharreko bizilagunak gogaituta gaueko zaratekin eta mugikortasun arazoekin

Kale Zaharra eta San Anton kaleko bizilagunen ordezkari batek beraien haserrea adierazi zioten udalbatzari uztaileko oso-ko bilkuran.

Gaueko zaratekin duten arazoa gogorarazi zuten. “Tabernari batzuek ez dute ez ordurik ezta dezibelio mailarik errespetatzen, gure atsedenerako eskubidearen kaltetan”. Mugikortasun mailan duten arazoa ere salatu zuten; “txirrindulariak gora eta behera ibiltzen dira, debekuak errespetatu gabe, eta gidari askok autoa uzten dute aparkatu ezin den tokietan”.

Eta arazo horien aurrean ez udaltzainek ez Udalak ez dutela ezer egiten salatu zuten.

Tabernetako zaratei dagokienez, neurketa aparailuekin arazo teknikoak daudela azaldu zuen alkateak, eta mugikortasunari dagokionez, onartu zuen ez dutela jokatu behar besteko zorrotzasunez.

EAJk zaraten mapa egitea eta batzorde iraunkor bat sortzea proposatu zuen, Udaleko ordezkari politiko nahiz tekniko eta auzotarrerekin, konponbiderako oinarriak adosteko.

Foru Aldundira zuzendu beharreko eskaera, idatzi eta jakinarazpenak udaletxean aurkeztu ahal izango dira

Eskabideak, idatziak eta jakinarazpenak aurkezteari buruzko lankidetzak hitzarmena sinatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Oñatiko Udalak. Hitzarmenaren arabera, herritarrek baimena izango dute diputazioari edo udalari zuzendu beharreko eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak bi erakundeotako edozein erregistrotan aurkezteko. Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da, eta automatikoki luzatuko da lau urteka, salaketarik ezean.

ARRIZABALAGA
Aroztegia
Berozaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak
Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BU, XALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia
Larrañaga, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserritiko ogia, egurrezko laboreak

Umeendako menua egongo da aurten Herri Eguneko bazkarian



Herri Eguneko bazkarian familien partehartzea sustatzeko asmoz, aurten umeendako (-12 urte) menua ere egongo da aukeran. Makarroiak eta herriko okelarekin egindako hanburgesak

osatutako menua izango da, eta 10 euro balioko du. Nagusiendako menuan marmitakoa eta herriko okela gixatua egongo da, 19 eurotan, postrea, edaria, kafea eta kopa barne. Datozen egunetan jarriko dira salgai txartelak Olakua, Izarraitz, Arrano eta Oñati tabernetan.

Iturri gorritik ateratako su egurra enkantean salduko du Udalak

Iturri gorriko pagadian bakanketa lanak egin behar direnez, bertatik aterako den egurra sutarako salduko du Udalak. 13-15 tonako kamioikada loteak salduko dira, 680 €-tan. Interesatuak irailaren 9a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Su egurra etxeko kontsumorako izan beharko da, eta eskatzaileak Oñatin erroldatuta egon beharko du.

Adinekoentzako bi etxebizitza errentan emateko deialdia

Udalak Bidebarrieta kaleko 22an dituen adinekoentzako lau etxebizitzetatik bi hutsik geratu direnez, berriz ere alokairuan emateko deialdi irekia egin du.

Adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuen araudi berriaren arabera, etxebizitza hauek eskuratu ahal izateko baldintzak hauek dira: 65 urte baino gehiago edukitzea, eta menpekotasun minimo bat edukitzea. Interesatuak udaleko Gizarte Zerbitzuetan (Bidebarrieta, 12 / 943037700) eman behar dute izena, gizarte langileekin egon ondoren.

SU-DETEKTAGAILUAK JARTZEKO ESKAERAK

Etxe partikularretan su-detektagailua jarri nahi duten herritarrek urriaren 31 baino lehen egin behar dute eskaera udaleko Gizarte Zerbitzuetan (Bidebarrieta, 12). Beraien etxean bizi diren 80 urtetik gorako herritarrek eska dezakete su-detektagailua jartzea, eta Udalak hartzen du bere gain instalazioaren eta ondorengo mantenimenduaren kostua.

Zubillagako berritze lanak esleituta

Zubillagako urbanizazioa berritzeko lehen faseko lanak esleitu dizkio Udalak Artzamendi eraikuntza enpresari 121.465 eurotan (BEZ kanpo). Lehen fase honetan, Ulma Forja eta Olaburu arteko tartea eraberrituko dira. Irailean edo urriaren hasiko dira lanak.

Guk egin dugu gure aukera,
ELKAR HEZI

Zeurea egin dezakezu
ORAIN

HALIN HEZKUNTZA (0-6) ETA LEHEN HEZKUNTZA: Arantzazu kalea 13, 48943 715973 www.elkarhezi.eus
 OEH eta Batxi: Santa Marina plaza 2, 48943 718270
 Bakoan gero bisitak egiteko edota informazio gehiagorako deitu 943718272 telefonara.

ELKAR HEZI (Euskoadi) 13847444 2 0 0 0

Bilam ke



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala
ZUZENDARIA: Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA: Aratz Losada
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia
INPRIMATEGIA: Gertu
Tirada: 5.500 ale
Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea: publi@onati.eus
Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Ilunpetan

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Gaztetxo Eguna Oñatiko jaietan

Amaia Erostarbe, Ritxar Fernandez eta Marijo Etxegoien, EAJko zinegotziak

San Migelak ospatzen dira Oñatin Sirail bukaeran eta urri hasieran. Jai horietan, Gaztetxo Eguna ere antolatzen da. Jai-egun berri samarra da, eta San Migel Egunean, irailaren 29an, egin izan da. Iaz, txosnetan kokatu zen, eta aurten ere horixe da plana. Halaxe dago jasota txosnetako behin-behineko egitarauan.

Intentzio horrek, hala ere, ikaragarri arduratu ditu guraso batzuk. Ez hainbeste noiz egin asmo den, irailaren 30a ere oso gun egokia den arren. Bai, ordea, non egin nahi den: txosnetan. Hala, zenbait guraso EAJren zinegotziongana hurbildu zaizkigu, eta kezka handia agertu digute. Gurasoen esanetan, txosnagunea ez da leku neutroa egun hori antolatzeko, ez kontsumoen prebentzioaren ikuspuntutik, ez ikuspuntu politikotik. 2016ko jaiak gerturatuaz doaz, eta gurasoen urduritasuna ere handituaz joan da. Baina, gurasoek ez al daukate zer esanik asmo horretan? Gure ustean, kontuan hartu behar da haien iritzia.

Intentzio horren aurrean, EAJren udal-taldeak zera proposatu du Kultur- eta Gaztedia-batzordeetan (2016-07-21): Gaztetxo Eguneko ekitaldiak Gazteleku aurrean kokatzea eta inguru horretantxe antolatzea, plaza ere hartuta. Horixe da, hain zuzen, nerabeen (12-17 urte) leku naturala Oñatin; lekurik neutroena ere horixe da. Ezin zaigu ahaztu gaztetxoak adin txikikoak direla. Gure iritzian, gurasoen kezka oso erantzun egokia emateko irtenbidea da, eta, bidez batez, irailaren 30an ospatze-ko aukera ere zabalik uzten da.

Hemen jaso nahi ditugu, halaber, bat-

IBILGAILUAK BIDEGORRIAN

Egun batean bai eta hurrengoan ere bai argazkian ikusten den egoera errepikatzen da Oñati eta San Prudentzio arteko bidegorrian: autoak bidegorrian aparkatuta Zubillagako industrialdearen inguruan. Ondorioz, bizikletan edo oinez doazenak errepidera irten beharra daukate pasatzeko eta horrek arriskua handitzen du, Txirrinka taldeak salatu duenez. Dagokionari dei egiten diote horrelako egoerak gertan ez daitezen.



zorde horietan EAJren zinegotziak aurkeztutako proposamen zehatzak Gaztetxo Eguna prestatzeko: (1) bazkaria eta bazkalosteko jolasak Gazteleku aurrean antolatzea; (2) tirolina parrokiako karpandorretik Santa Ana aldera jartzeko txosten tekniko eskatzea; (3) gastronomia-lehiaketa antolatzea goizean (pintxoekin, pizzeekin, brotxetekin...); (4) jolasetan, zaku-karrerak, karta-txapelketak (eskoba...)... egitea. Horrez gain, proposatu da ilunkararako elektrotxaranga bat ekartzea edo kontzertua egitea plazan gaztetxoaren gustuko musikatalderekin (*Trikimalu, Gaitzerdi...*). Azkenik, adierazi nahi dugu egun bereko Ongizate-batzordeak onartu duela drogen Testing-mahaia jartzea; txosnagunean ipiniko da.

Amnistiaren norabidean, preso eta iheslariak etxera

Jose Mari Zugasti

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak garatzeko lege-baliabideak erabiltzeko prestasuna agertu zuen 2013ko abenduan. Kolektiboak norabide horretan hartutako erabakiak babeste aldera, manifestu bat plazaratu genuen Usurbillen.

1665 preso politiko ohien atxekimenduari, Apirilaren 17 -rako (Nazioarteko preso politikoen eguna) amnistiaren norabidean preso eta iheslariak etxera lelopean manifestaziora deitu genuen. Milaka euskal herritar izan ginen Bilboko karraketan eta aurrera begira ere, lanean jarraitzeko konpromisoarekin etxera bueltatu ginen.

2013tik gaurdaino egia da, espetxe frontea tantaz tanta izanik ere husten joan dela, baina oraindik ere ehundaka dira espetxean salbuespeneko araudi zorrotzen ondorioz gatibu dauden euskal preso politikoak. Garaia da, gatazka politikoa gainditze bidean, korapiloak askatzen joan eta espetxe fronteari dagokion amaiera emateko. Biharko Euskal Herri askea denon artean eta askatasun osoz eraiki nahi dugulako, gaur egun espainiar eta frantziar espetxetan dis-pertsaturik dauden euskal preso politikoak, gure aldamenean nahi eta behar ditugu.

Horretarako guztion konpromesua ezinbestekoa da, bakoitzak bere ahalmenaren arabera baina denok urrats berri bat eman beharra daukagu. Herriko jaiak ate joka ditugunean, oñatiar guztioi animatu nahi zaituztet, preso, iheslari eta beraien senideen eskubideen defentsan izango diren ekimenetan parte hartzera... denon artean etxerako bidean jartzea, etxeratzea lortuko dugu!

JANTZI BETAURREKO MOREAK

Jone Arrazola, 'Pototak' taldearen izenean

Udia igaro barri dakula datoz aurten-guan be Oñatiko Jaixak. Algara eta jolgorixo ugariko egunak izan arren orduan be dana ezta gure errespetu eta gustokua izaten; izan be, onezkero ondo ezagunak xaku mutil eta gizonezkuek neska eta emakumion kontra buruketan ditzuzten eraso sexistak. Biolentzia hau konplexutasun eta ertz askotakua izanagatik, ez gabitz iritzi edo irudipen kontu batez, baizik eta emakumiok gure bizitza osuan zihar pairaketan jarraiketan dogun egiturazko bortizkeria bati buruz. Guk ondo dakigu zertaz gabitzen berbetan: gure gorputzak, erabakixak eta disfrutaitteko eskubidia errespetaitzen ez ditzuzten ekintzez eta ohiturez.

Bada, Genero Sistema mendebaldarrak, Euskaldunak barne, emakume eta neskekiko sortzen dauen infantilizaziño, esklabutza eta bazterketia, gabakin, egunakin, taberna eta txosna giruakin,

plaza eta kaliak hartziakin, umoriakin, erritmo dantzagarriekin, soldatapeko lanakin eta era berian debalde hartzen ditzugun mila ardurekin, familia enkontru haundixekin, ligaittiakin eta mozkoraldixekin zer ikusi zuzena dakoin inddar erakustaldi maskulino moduan egikaritzen dira jaietan.

Goittik behera biluzten gaituzten begirada lizunak, gure edertasun edo zakartasunari buruzko komentariuak, ezezko bat onartu ez eta ordu luzez jasandako akosua, jendez lepo dauzen tabernetan, iluntasunak eskainketan dauen anonimotasuna aprobetxauaz, gure ipurdi eta bularrek jasotzen ditzuzten igurtzi eta ikutuak, etxera bueltaitteko garaixan bidia bakarrik itteko bilddurrez lagun bati laguntzia eskatu bihar izatia edo bidia geure kabuz inagatik giltzak eskutan, bukaera bariko Bidaurretako etorbidea bost zentzumenak

alertan igaro bihar izatia, helduenek familixa bazkaittarako sukaldian sartu biharreko orduak, barra ostian lana inagatik danairi barre bat erregalaittera bihartuta egotia, komunera bakarrik fateko bilddurrez biñan fan bihar izatia, jostailu hutsan pare trataitzen gaituzten kantuen ritmora dantza ittia edota gaupasa in eta biharamunian kuadrilla danan ahotan "golfa", "puta" edo "ganoragabe" izenpeian irartzaria.

Kasu danak dia Genero Sistema euskaldun eta ez-parekidearen adierazle. Horregatik gutako bakoitzak norberan pribilegio eta eskubide urraketak naturaletik ezer gutxi dakoila konturatu eta begi bistako eraso zein gure kontzientzien sakoneko eredu injustuak identifikauaz, honein kontra batera erantzutia danon betebiharra da. Kasuan kasu, betaurreko moreak jantziz, neska eta emakumiei gune seguru bat eskainiz eta erasotzailien kontrako neurri imo eta kolektiboak hartuz, sinisketan dogu aurtengo jaixak guriak be izango diala.

Eskerrik asko,

Pedro Mari

Argitxu, Miren, Amaia eta Tanborradako zure lagunak



Apaltasunez, mirespen guztiz idazten dizugu zuri, hainbat urtetan talde lanean izan dugun lagunari. Zure onena eman zenion Herriko Tanborradari, oroitzapenak politak dira Mila esker Pedro Mari.

Gure artetik joan izan arren jarraitzen duzu bizirik, tanborren hotsek ez bait daukate zuretzako adiorik. Gure barnean geratzen diren hainbat momentu izanik, Batzorde honek ez du ahaztuko inoiz zure irrifarririk.

Juan Zelaia hil da

Abuztuaren 10ean zendu zen Juan Zelaia Letamendi (Oñati, 1920), enpresa gizon eta euskalzale bezala nabarmendu den gizona, ez bakarrik Oñatin baita Euskal Herri osoan ere.

Ingeniaria ikasketaz, Cegasa, Tuboplast eta Hidronor enpresetako buru izan zen. Enpresari moduan izan zuen ibilbide oparoaz gainera, euskararen eta euskal kulturaren sustatzaile sutsua izan zen. Hala, bestea beste, Ikastolen edo UZEIren (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) sorreran parte hartu zuen modu aktiboan. Euskal literaturaren arloan *Juan Zelaia Saria* atera zuen Pamiela argitaletxeak haren omenez.

Kirol munduarekin ere lotura zuzena izan zuen, eta, besteak beste, 1974an ikurrina Everesteko gailurrera igotzeko saiakera egin zuen *Tximist* espedizioa babestu zuen.

Euskal diasporarekin ere harreman estua izan zuen Juan Zelaia, bizitza erdia Amerikan eta Europan zehar egin zuelako, eta bera ere diasporako euskaldun bat gehiago sentitzen zelako. Euskal Fundazioaren sortzaile, Juan Zelaia saiakera beka eta musika sorkuntzarako beka bat ere sortu zituen.

Errekonozimenduei dagokionez, 2000. urtean Sabino Arana Saria eta Eusko Jaurlaritzaren Lan Onari aitortza eman zioten. Bi urte beranduago, 2002an, Gipuzkoako Diputazioaren antton d'Abbadia saria jaso zuen, eta 2003an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Urrezko Domina. (*Kontzejupetik aldizkariaren 77. zenbakian Irakur daiteke Juan Zelaia egindako elkarrizketa*).

Eskerrak Oñatiko herriari

Igartua-Goitia familia

Pedro Mari Igartua Olalderen familiak, eskerririk beroenak eman nahi dizkio Oñatiko herriari egun hauetan igorritako babes, maitasun eta indar guztiagatik.

Herrian etxean bezain maitatua zela erakutsi diguzue eta bere danborraren soinuak guztion oroitzapenean jarrai dezala. Eskerririk asko bihotzez.





“ZENBAT GIZONEK BORTXATZEN GAITUTZEN...”

Gordina eta latza emakumearen aurkako bortxarena, tamalez gaurkotasan handikoa, bere aldaera batean egunotan agerikoagoa (ez berria), gure herrietako jaiekin bat: ezin konta ahala kasu, Barakaldon, Iruñean, Lezon, Getxon... gure herrian, auzoan..., banaka, taldeka.

*“San Ferminak amaituta, zenbat emakume bortxatu dituzten kalkulatu dute hedabideek. Zenbat emakumek bortxaketa **salatu** duten zenbatu dute, hain zuzen. **Albistea, baina, zenbat gizonek bortxatu gaituzten litzateke**”* (Maria Gonzalez Gorosarri, kazetaria eta ikertzailea-GAUR8, uztailak 30).

- Bortxa:** indar-gehiegikeria, indarkeria.
- Bortxatu:** Indarrez behartu eta amore emanarazi. Hiztegi entziklopedikoan ordea, beste adiera hau ere azaltzen da bortxatu aditzaz: Norbaitek beste bat indarkeriaz berarekin **sexu-harremanak** izatera behartu.

“Gogoz kontrako sarketa ez da sexu harremana. Inork ezin gaitu sexu-harremanak izatera behartu, behartuz gero, harremana ez delako. Horregatik bortxaketa ere ez da sexua, bortxatzaile-arentzat ere ez.”

Jakina, nire hipotesia baino ez da, baina, Mariaren iritziaren alde eta entziklopediak bere azken adieran jasotzen duenaren aurka, nago bortxaketek ez dutela zerikusirik behinena sexu-grinarekin, eta are gutxiago dira (sexu)-harreman (hartu-eman), baizik eta botere-nahikeria, gurarikeria, konplexuz beteriko ume-gi"x"onen autoafirmazio ekintza gaixo, zapalkuntza, inposizio, muga ezin jasan, kontsumismo berehalako/konpultsiboarekin, proto/gaurko/post-kapitalismoaren ezaguri direnak, berdin Emakume zein Naturarekin (eta besterekin) erlazioatzeko **indarrean** dugun harreman-ereduetariko bat: beti proto-agonista (proto=lehen-



Juan Carlos Olaeta

lehen + agonista=gerlari -erdigune armadun falikoa, gure kasuan "heldu" izan arren beti infantila, heldugabea) izan behar duen potro-agonistarena (bi dituen eta di-da bere nahiak orain/hemen lortu nahi/behar dituenarena), denaren gainean eta gaintetik, nola edo hala, bortxaz edota indarkeriaz baita, noski.

Indarkeriaz edota bortxaz zerbaitekin oihartzea merezi duela uste dut: indarkeria bezala bortxa, eta nagusikeria, fisikoa ez ezik, politikoa, erlijiosoa, morala, laborala, ekonomikoa, akademikoa, mediatiko-publizitatekoa, **hizkuntzakoa**, kirolekoa, familiakoa, lagunartekoa... ere izan daiteke, eta bideak ugari eta zoliak, indarkeria fisikoaren arrasto izpirik antzeman gabe. Konplexua.

Esan bezala, hizkuntzak honetan ere badu bere garrantzia, eta aitortu behar dut bortitza, zorrotza eta deigarria suertatu zitzaidalda Maria Gonzalez Gorosarriena, eta horregatik egokia: *“Albistea baina zenbat **gizonek bortxatu gaituzten litzateke**”*. Agian huskeria izango da askorentzat eta ni oso inozoa, baina sarriagoak diren "emakume batek eraso sexistak jaso zuen", "...jaietan bi bortxaketa salaketa izan dira" baino, bortxa-ekintzen ohiko egileak, subjektuak argi eta nabarmen gizon-taldearekin identifikatzeak (eta ez ezkutuan, erre-flexiboan, elipsi bukagabeetan) nola-baiteko zirrara berezia eragin eta "gizonen taldeko kide" bezala nire ardura eta erantzukizuna oraindik argiago ikusten lagundu dit seguruenik. Beraz, kohe-renteki, zentzu hedagarrian, semeak eta gu (aitak ala ez)

dira/gara giltzarri bat, tristeki, **gu (izango) garelako gure herrietako emakumeen kontrako bor-txa-egileak**, beti inoren seme eta alabak garen/direnak.

Egin kontu: desioa bera hezi egiten da, maskulinitate eta feminitate ereduak baita (gai interesgarria maskulinitate eredu berriena!), berdin erakargarritasun-bideak eta gizarte-jokamoldeak, eta horregatik gerta daiteke nagusikeria- eta bortxaharreman ukatuaren betean bizitzea, norberak bide batez pentsatuz eta sinetsiz hautu guztiz pertsonal eta askea izan dela bere aukeraketa hori, bortxa-kateari norbera loturik duena. Sexu-harremanak ere eduki ditzakegu honekin-horrekina hone-lako-halakoak han-hemen gaur-bihar pentsatuz nik neuk aske burujabe erabaki dudalako izan dela, benetan halaxe inondik inora izan gabe, edo modu eta motibazio norberarentzat ere oso lausotuek "bultzaturik". Auzia beraz, konplexua da oso batzuetan. Garbi dagoena zera da, hezi egin badaiteke eta izatez hezi egiten bada, hezkuntzak berebiziko garrantzia hartu behar duela, hezkuntza arautuak bai (eskola), jakina, baina bera bakarrik herabe, indarge izango da, gizarteko beste heziketa-eragile gaur egun seguruenik efikazagoen laguntza barik, familia, internet, telebista eta abar bai, baina baita gure txistetxoak, whatsapp, komentarioak, gure tole-rantzia ala eza intentsitate txikiko edo handiagoko nagusikeria edo bortxa egoeren aurrean..., denen aurrean bai, eta arreta berezia geuk gizonok e(ra)gin ohi ditugunetan? Ez naiz ni batere sorgin-ehiza zale, alderantziz, baina gordinik adierazita, gero eta nazka handiago hartzen eta tolerantzia gutxiago diet "gure plazetan" ibili ohi diren klase guztietako "matxitoei", berdin euren "poiekzioei", ez baitute besterik proiektatzen.

Zilegi bekit bortxakeriaz eta hezkuntzaz aholku bat: "Ez da ... Ez!", Arantxa Urbe, Hik Hasiko kidea, GAUR8 uztailak 23.

>> HAUR ETA GAZTEAK

GURE EKINTZEN BERRI EMANGO DUEN ATALA...

- Arazerixan -

HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!

Aurtengo uda ere, ekintzez betea izan da haur eta gazteria zerbitzuetan; udaleku irekiak, arte udalekuak, kuboko eta topalekuko irteerak, eszenikoak, ... primeran pasatu dugu!! Eskerririk asko gurekin era batera edo bestera parte hartu duzuen guztiei!!

Irailean berriro ere gure zerbitzuak martxan jarriko dira, ohi bezala, eta dagoeneko herriko jaietan eta udazkeneko ekintzekin hasiko gara lanean buru belarri.





Borja Moiua (udaleko Kirol batzordeburua)
Oskar Carrascal (kiroldegiko zuzendaria)
eta Asier Arregi (E-goitek)

Fit-Bike zerbitzua goizeko 7,30etan eskainiko dute aurten kiroldegian

PILATES-EN ERE TALDE BERRIA OSATUKO DA GOIZEKO 10:15etan. IRAILAREN 12, 13 ETA 14AN ATE IREKIAK EGINGO DIRA.

Fitness arloko 15 zerbitzu eskainiko ditu kiroldegiak 2016/2017 ikasturtean. Alde horretatik ez dago berritasunik, iazko programa mantentzen baita. “Urtez urte egonkortuz joan den eskaintza da, eskari handiena duten zerbitzuekin” azaldu digu Oskar Carrascal kiroldegiko zuzendariak. “Uste dugu eskaintza oso zabala dela eta, beraz, ez dugu zerbitzu berririk ematea aurreikusten, baina ohiko zerbitzuak eten barik eguneratzen joango gara, material eta tendentzia edo joe- ra berriak txertatuz”.

ORDUTEGI BERRIAK

Ordutegian aurkituko ditugu aurtengo berritasun nagusiak. Hala, azpimarratzekoa da, Fit-Bike zerbitzua goizeko 7:30etan eskainiko dela, eta Pilates-en ere talde berri bat osatuko da

goizeko 10:15etan. “Eskari handia duten zerbitzuak dira, eta eskaintza osatu beharra zegoela ikusi dugu” azaldu digu Borja Moiua udaleko kirol batzordeburua.

Irailaren 15ean hasiko da ikasturte berria kiroldegiko fitness zerbitzuetan, eta 650 plaza eskainiko dira guztira. Kiroldegian eta www.onati.eus webgunean kontsulta daiteke egutegi-ordutegia. Iaz 5.278 erabiltzailek parte hartu zuten guztira, 480 hilabetero.

ATE IREKIAK

Ikasturtea hasi aurretik, ate irekien saioak egingo dira hilaren 12, 13 eta 14an. “Aukera oso ona da kiroldegian eskaintzen diren zerbitzuak, instalazioak eta monitoreak ezagutzeko, eta, beraz, animatu egiten ditut herritarrak ate irekietan parte

IRAILAREN 15EAN HASIKO DA IKASTURTE BERRIA KIROLDEGIKO FITNESS ARLOKO ZERBITZUETAN

hartzera” adierazi digu Asier Arregi ‘E-goitek’-eko kideak.

EKINTZA OSAGARRIAK

Kiroldegiak eskaintzen duen fitness programa osatzeko, urtean zehar hainbat ekintza osagarri (Zumba eta Fit-Bike zirkuitoak, osasun jarduerak, gimasioko ekintza bereziak...) antolatuko dira aurten ere. Hurrengo hilean emango dute jakitera egitarau osoa.

FITNESS-GIMNASIA ZERBITZUAK

EKINTZA LASAIAK

Pilates
Body-Balance

INTENTSITATE ALTUKOAK

Fit-bike
Fit-bike tono
Zumba
Zumba step
Running

EKINTZA EGOKITUAK

Body-tono
Gimnasia egokitua
3. adineko gimnasia

EKINTZA TERAPEUTIKOAK

Gimnasia terapeutikoa
Pilates terapeutikoa

GAZTEENTZAKO EKINTZAK

Fit-bike gazte
Zumba kids (LH)
Zumba-gazte (DBH)

OUTDOOR EKINTZAK

Running
Nordic Walking

ESKOLA KIROLA

Irailaren 12tik 23ra zabalduko da Eskola Kirola programan izena emateko epea. Hilaren 7 eta 8an eskaintzaren berri ematen duen diptikoa banatuko da ikastetxeen bitartez. (Astegunetako zerbitzuetako eskaintza kiroldegian dago ikusgai). Ikastetxeetako Eskola Kiroleko koordinatzaileengana ere jo daiteke informazio eske. Astegunetako ekintzak urriaren 10ean hasiko dira, eta larunbatetakoak urriaren 15ean.



ATE IREKIAK

2016/17 ikasturtean zehar Zubikoa kiroldegian eskainiko diren Fitness zerbitzuak probatzeko aukera egongo da irailaren 12, 13 eta 14an. Edozein herritarrek parte har dezake saio hauetan, izan kiroldegiko bazkide, edo ez. Saio guztiak dohainik dira. Pilates-eko hastapen saioetan parte hartzeko derrigorrezkoa da izena ematea. Gainera, hastapen saio hauek egitea beharrezkoa da, gero Pilates taldeetan parte hartzeko. Gainerako zerbitzuetan ez dago izena eman beharrik, baina plaza gordetzeko izena ematea gomendatzen da.

	Irailak 12, Astelehena				Irailak 13, Asteartea				Irailak 14, Asteazkena			
	Amanak	Fit lane	Habit	4. gela	Amanak	Fit lane	Habit	4. gela	Amanak	Fit lane	Habit	4. gela
7:30												
8:15			Fit lane									
10:15												
13:15												
19:30												
20:00												
17:15												
18:15												
19:15												
20:25												

Ate irekietako saioak doan dira. ZATOZ PROBATZERA!

AHOKULARITZA PRESENTZIALA: E-goitek zerbitzuko langileak kiroldegiko harreran egongo dira taulan adierazitako egun eta orduetan, fitness zerbitzuei buruzko informazioa emateko. Emailaz (onati@egoitek.eus) edo telefonoz (943716375) ere eska daiteke aholkua.

Igeriketa ikastaro eta ur-ekintzetarako izen ematea

Irailaren 5etik 8ra (10:00-13:00 / 16:00-19:00) eman behar da izena Zubikoa kiroldegian, urriaren 13an hasiko diren igeriketa ikastaroetan eta ur-ekintzetan (*Aquagym*, *Aquatrining*...) parte hartu ahal izateko. Irailaren 16an behin-behineko zerrenda argitaratuko da kiroldegiko harreran eta www.onati.eus webgunean. Erreklamazioak egiteko bi eguneko epea zabalduko da irailaren 19-20an, eta behin-betiko zerrendak irailaren 23an argitaratuko dira.



'Aquafitness'-eko Formazio saioa irailaren 17an

Mankomunitateko kirol zerbitzuek antolatuta, 'Fitness jarduerak uretan' trebakuntzarako eta esprirentziak konpartitzeko saioa egingo da Zubikoa kiroldegian irailaren 17an. Zortzi orduko saioa izango da (9:00-13:00 eta 15:00-19:00). Ur ekintzetako monitoreei, heziketa fisikoko irakasleei, sorosleei, entrenatzaileei eta, oro har, fitness arloan diharduten guztiei luzatzen zaie gonbitea. Plaza mugatuak dira (gehienez 25 / gutxienez 12). Irailaren 5etik 14ra zabalduko da izen-emate epea Zubikoa kiroldegian (zubikoa@onati.eus / 943716375).





MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behekoa • Tel.: 943 78 03 87 • email: inkorta@telefon.eus

Espainiako triatleta onenen artean

Mikel Ugartek Espainiako triatloi txapelketan parte hartuko du irailaren 4an

Denboraldi bikaina egiten ari da Mikel Ugarte triatleta oñatiarra, eta asteburu honetan estatuko espezialista onenekin indarrak neurtzeko aukera izango du, Banyolesen (Girona) jokatu den elite mailako Espainiako txapelketan.

Bertan parte hartu ahal izateko bost sailkapen-proba jokatzeko dira estatuan zehar, eta bakoitzeko lehen hamabi sailkatuek lortzen dute txartela. Ugartek Aritzalekun (Nafarroa) eskuratu zuen, seigarren postuarekin. Gainerako lehiakideak, 100eko kupoa osatu arte, nazioarteko triatletak edo Espainiako federazioak bekatuta daudenak izango dira. Beraz, oso maila handiko lehiaketa, zalantzarik gabe. Iaz ere parte hartu zuen Ugartek Espainiako txapelketan, eta 40. sailkatu zen. Aurten 30. postura hurbiltzeko helburu edo ilusioarekin doala aitortu digu.



Debako triatloia irabazi du aurten Ugartek. Mutrikun 2. sailkatu da, eta Donostian eta Pasaian 4.



Aloña Mendiko igerilariak Espainiako txapelketan

Nerea Diaz, Eric Ugarte eta Ainhoa Redin Aloña Mendiko igerilariak Espainiako txapelketan parte hartu zuten uztailan, oso lan txukuna eginez. Diazek eta Ugartek marka pertsonalak egin zituzten 50 Librean, eta Redinek 100 bizkarrean.

Iokin Garai 13. munduko Ultra Trail txapelketan

Iokin Garai mendi lasterkari oñatiarra 13. sailkatu zen uztailaren 23an Barrueran (Katalunia) jokatu zen munduko Ultra Trail txapelketan. 105 kilometro eta 7.950 metroko desnibel positiboko ibilbidea 13:39:38an osatu zuen oñatiarrak. Gogoratu, bi aste lehenago, Goierriko G2H lasterketan (88km) bigarren sailkatu zela Garai. Proba bereab Xabier Lete oñatiarra 10. sailkatu zen. Azpimarratzekoa baita ere Ehunmilak proban (168km) Aitor Otamendik lortutako 5. postua.

Txirrindularitza eta futbola

Ohorezko Erregional mailako futbol taldeak irailaren 11n jokatu du liga txapelketako lehen partidua Real Unionen aurka Azkoagainen (16:30). Bestalde, irailaren 10ean Jubenil mailako txirrindularien San Migel saria jokatu da, eta hilaren 17an Afizionatu mailakoa.

DISTANTZIA OLINPIKOA

Olinpiar erako distantzian jokatu da txapelketa: 1,5 km. igerian, 40 km. bizikletan, eta 10 km. korrika. Gustuko duen distantzia dela esan digu triatleta oñatiarrak. "Triatloi motzetan baino hobeto moldatzen naiz. Normalean ondo erregulatzen ditut indarrak, eta nahiko indartsu iristen naiz erabakiorra izaten den 10km.-ko korrikako saiora".

Iruñako Saltoki-Trikideak taldean ari da aurten Ugarte. Espainiako triatloi ligako lehen mailan dauden hamar taldeetako bat da, eta horrek estatu mailako probetan lehiatzeko aukera zabaltzen dio.

Tarteka, Euskadiko zirkuitoko probetan ere parte hartu du Ugartek, oso emaitza onak lortuz. Debako triatloia irabazi zuen, Mutrikun bigarren sailkatu zen, Donostian eta Pasaian laugarren, eta Ondarroan zazpigarren.

Emaitza on guzti hauen atzean lana dago, jakina. Lan asko. Astean 12-15 entrenamendu saio egiten ditu Ugartek; astelehenetik ostiralera egunean bi, eta asteburuetan, askotan hiru saio. Eta horrek diziplina handia eskatzen du.

PSICOLOGIA ZENTROA
ROSA RUEDA
Zubiraga Auzoa, 20
943 04 74 06
psicologia-rueda@cop.es
www.psicologiarosarueda.com

ANSIETATEA
ESTRESA
TIBURMIALGIA
DEPRESIOA...

Arquitectura Estudio
Amara igartua
-Zaharberritzeak -Itxurkaria Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa -Igoeraren proiektuak -Berrin dekorazioa -Jardueren itzultzaia
Tel: 677 31 20 57 • email: amaraigartua@gmail.com • Ornat

mondragonLingua

ALDEA IGARRIKO DUZU

MondragonLinguan,
beste era batera egiten dugu dena,
gure programa desberdina da,
gure metodologia ere bai.
Gure klaseak desberdinak dira,
**eta, agerikoa denez, gure emaitzak
ere badira desberdinak.**

Beraz, ez izan zalantzarik
eta matrikula egin
MondragonLinguan

ALDEA IGARRIKO DUZU

Informa zaitez zure
MondragonLingua
zentroan:

Motxon kalea 7,
Oñati.
Tel. 943 71 60 00

Horrez gain,

matrikula
urriaren 21a baino lehen
egiten baduzu,
bi lagunentzako* asteburua
irabazi ahal izango duzu
**Londresen, Baztanen edo
Hondarribian.***

 **EROSKI** / **biopik**

* Zeure MondragonLingua zentroan
kontsultatu baldintzak.



PROBARAKO

SAIOA

IRAILAK 14

SANTA ANA, 19:00



Musika Eskolak eskainiko duen ikastaroari buruzko informazioa emateko saio irekia egingo da irailaren 14an Santa Ana aretoan (19:00). Patxi Montero irakasleak berak azalduko du nolakoa izango den ikastaroa eta zer landuko den bertan.

Plazako dantza tradizionalen ikastaroa eskainiko du aurten Musika Eskolak

► Plazako dantzetan aditua den **Patxi Montero** izango da irakaslea

Musika arloan duen eskaintza zabala osatuz, aurten plazako dantza tradizionalak ikasteko aukera ere eskainiko du Jose de Azpiazu Musika Eskolak.

Urrian hasi eta ekainerarte luzatuko da ikastaroa. Astean ordu eta erdiko saio bat izango da, asteazken arratsaldetan: 18:00etan Hastapen mailakoa, eta 19:30etan Aurreratua.

Lekua guztiz konfirmatu gabe dago, baina seguruenek Zuazola institutoko gimnasioan emango da ikastaroa.

Plazako dantza tradizionalen aditua den Patxi Montero arrasatearra izango da irakas-

lea. 'Herrixa Dantzan' ekimenaren sustatzailea da Montero, eta esperientzia handia du dantza-gidari lanak egiten Euskal Herriko plazetan.

Gure kultura tradizionalak diren plazako dantzak landuko dira ikastaroan zehar: *Balsa, Pasodoblea, Polka, Fandangoa, Arin-arina, Jauziak...* Sokan, taldean, bikoteka edo soltean egiteko dantzak.

Helburua da dantzak txukun egiten ikastea, eta, batez ere, dantzarekin disfrutatzea, eta beste herritarrekin batera dantza eginez gozatzea.

IKASTAROAN PARTE HARTZEKO EZ DA BEHARREZKOA AURRETIK OINARRI BAT EDUKITZEA. HERRIKO GAZTE ETA HELDU GUZTIEI IREKITA DAGO

GAZTE ETA HELDUENTZAT

Ikastaroan parte hartzeko ez da beharrezkoa aurretik oinarri bat edukitzea. Ez da dohai edo prestakuntza berezirik behar. Dantza tradizionala naturala da, eta edozein herritarrek egin dezake. Beraz, ikastaroa irekia da, eta herriko gazte eta heldu guztiei dago irekia.

Herriko jaien ostean jarriko da martxan plazako dantzen ikastaroa eta, beraz, bertan parte hartzeko interesa duten herritarrek irailean zehar eman dezakete izena Musika Eskolan: 943783174 edo zuzendaritza@jazpiazumusikaeskola.com



IKASTARO BERRIAK MUSIKA ESKOLAN

2-3 urteko haurrentzako musika tailerra

Adituek egindako ikerketei esker, badakigu hezkuntza musikal goiztiarrak onura asko dituela haurren garapen integralean. Musikaren bidez jasotzen dituzten estimuloekin, haurren gaitasun fisiko, psikiko eta emozionalak garatzen dira, eta hori oinarri sendoa da haurren etorkizunerako. Horregatik, 2016/2017 ikasturtearekin batera, 2-3 urte arteko haurrei zuzendutako musika tailerra jarriko dute martxan Jose de Azpiazu musika eskolan. Astean ordubeteko saioak izango dira, eta haurrek guraso edo zaintzailearekin joan beharko dute. Ez da beharrezkoa gurasoek musikako ezagutzarik edukitzea. Saio praktikoak izango dira eta ariketa musikal ezberdinen bidez, mugimendua, koordinazioa, sozializazioa eta sormena estimulatzea izango da helburua, besteak beste. Arlo hoetan formazio espezifikoa jaso duten irakasleek emango dute ikastaroa. Informazioa eta izen-ematea irailean zehar musika eskolan (943783174).



Soinu tekniken tailerra

Soinu-Teknikari arloko ezagutza eskainiko du musika eskolak 2016/2017 ikasturtean. Nahasketa mahaia erabiltzen, mikroak, ekualizazioa, audio konfigurazioa eta edizio digitala landuko dituzte, besteak beste. Unitate bakoitzean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera egongo da. Gainera, amaierako proiektu gisa, CD bat sortu eta musika eskolaren kurso amaierako kontzertua muntatu, sonorizatu eta grabatu beharko dute. Izena ematen duten ikasleekin adostuko da eskola ordutegia. Interesatuak musika eskolan eman behar dute izena.

'Herrixa kantuan' indartzeko asmoa

Musika Eskolaren eta ikastolaren ekimenez hileko azken larunbatetan egiten den 'Herrixa Kantuan' ekimena indartzeko asmoa dute musika eskolako kideek. Kantu berriak ikasi eta errepertorioa zabaltzea da helburua. Horretarako, interesatuta dagoen jendearekin entsaio batzuk egitea da asmoa. Interesatuak musika eskolan eman dezatela izena. Iraileko 'Herrixa Kantuan' 24an izango da.



'Iparragirre Oñatin' antzezlanean parte hartu zuten aktoreetako batzuk

Arg.: Diario Vasco

'LANTZEAN BEHIN'

herri-antzezlan berria eskainiko du Olaitturrik irailaren 24an

'Lantzean behin' izenburua duen herri-antzezlan berria taularatuko du Makalena elkartetik sortutako Olaitturri kultur taldeak irailaren 24an. Iñazio Irizarrek idatzitako lana da, eta ikuskizun desberdina izango da, orain arteko antzerkiekin alderatuz. Izan ere, aurreko urteetako antzezlana Oñatiko historiako gertaera jakin baten inguruko kontakizunak ziren, eta lan berri honek aldiz, hainbat ipuin, istorio eta kontu solte batzen ditu. Hori bai, denek izango dute hari lotesle bat: herriko edo herrian egondako idazle

Bi emanaldi egingo dituzte Santa Ana antzokian: 19:30 eta 22:30.

eta historialariek jasotakoak dira, hala nola, Kandido Izagirre, Txomin Agirre, Luis Villasante, Salvatore Mitxelena, Antonino Ibarrondo, Manuel Umerez, Bitoriano Gandiaga...

Antzerkia eta kantua uztartuko dituen ikuskizuna izango da, eta 22 aktore ikusiko ditugu oholza gainean. Emanaldi bikoitza eskainiko dute Santa Ana antzokian: arratsaldeko 19:30etan lehena, eta gaueko 22:30etan bigarrena. Sarrerak Txokolateixan egongo dira salgai irailaren 5etik aurrera, 5 eurotan.

AGENDA

09

IRAILA

YOGA

hastapen ikastaroa



JAIALDIAK

> IRAILAK 4 / EGUN OSOAN

GAZTETXEAREN

4. URTEURRENA

11:30 Zuhaitz landaketa; 12:30 GUARDIA ZIBEER-ekin topa eta poteoa; 14:30 Bazkaria; 21:30 Emanaldia; *Bertxortan, Harakiri eta Hortzaka.*

HITZALDIAK

> IRAILAK 6 / 17:30

Pake Leku elkarteak antolatuta. Hizlaria: Ana Perez. Pake Lekuko aretoan.

> IRAILAK 15 / 18:30

'ADIOS A LA DEPRESION' AGIFES, Gipuzkoako buruko gaixoen elkarteak antolatuta. Hizlaria: Maider Gorostidi psikologoa. Kultur etxean.

ERAKUSKETA

> IRAILAK 13-16

ESKULANEN ERAKUSKETA

Pake Lekuko tailerretan egingako eskulanak ikusgai, egunero (18:00-20:00), Pake Lekun.

YOGAKO HASTAPEN IKASTAROA

> UZTAILAK 12-15 / 19-22 OÑATIKO YOGA ESKOLAN

Sanatana Dharma Oñatiko Yoga Eskolak hastapen mailako ikastaroa antolatu du ikasturte berriari begira. Yoga praktikatzen hasteko gogoz edo yoga zer den probatu nahi duten herritar guztiei irekita dago.

-DATAK: irailaren 12tik 15era eta 19tik 22ra.

-IRAUPENA: 8 eguneko ikastaroa, astelehenetik ostegunera.

-ORDUTEGIA: 19:30-21:00

-LEKUA: Oñatiko Yoga Eskola - Bidebarrieta 28.

-INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: 610 953 794 / yogaonati@gmail.com

LEHIAKETAK

> URRIAK 9

XIII. MENDIA ETA NATURA ARGAZKI LEHIAKETA



Aloña Mendiko mendi sailak antolatua. Bi atal izango ditu. **A saila** (gizakia mendian): alpinismoa, mendi zeharkaldiak, trekking-a, eskalada, BTT... (konpetizioak izan ezik). **B saila** (mendi ingurunea): paisaiak, mendiak, flora, fauna... Partaide bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu atal bakoitzean, eta 10€-ko inskripzio kuota bat ordaindu beharko du Paypal-en bidez. Atal bakoitzean 500, 300 eta 200 euroko hiru sari banatuko dira, eta Oñatiko saria (200€). Urriaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira lanak, www.concursosdigitales.com atariaren bidez.

IKASTARO-TAILERRAK

> IRAILEAN ZEHAR

INFORMATIKA KZ GUNEAN 'Ofimatika tresnak'; 'Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako'; 'Komunikatu zaitetz sare sozialen bidez'; 'Marka pertsonala eta LinkedIn'; 'Ofimatika orokorra'; 'Argazki ukitua GIMP erabiliz'; 'Android sistema eragilea'. Informazio gehiago: 943 023 672. Santa Marina, 1.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN TORN0 ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



ARGAZKILARITZA IKASTAROAK

Ilunpetan taldeak honako bi ikastaroak antolatu ditu.

HASTAPEN MAILA

Urriak 11-abenduak 13. Asteartero: 18:00-19:30 (+ larunbat goiz bat). Argazki kamera modu manulean erabiltzen ikasteko. Konposizioa eta oinarizko errebelatu digitala. (70€)

SAKONTZEN MAILA

Urriak 11 - ekainerarte. Hamabost egunean behin (19:30-21:00). Argazkien konposizioa, argia, filtroak, flash-ak... (180€).

IZEN-EMATEA ZABALIK!!!

Informazioa: ilunpetan@gmail.com
605753966



AUZOETAKO JAIAK

Atzeko Kale (irailak 9-11)
Arantzazu (irailak 9-11)
San Martin (irailak 16-17)

MUSIKA

> **IRAILAK 24 / 12:30???**
HERRIXA KANTUAN



Musika eskolak eta Txantxiku ikastolak

antolatutako kantu-jira, Foru enparantzatik abiatuta.

DEIALDIAK

> **IRAILAK 22 / 18:00-20:00**
FURGOBARATZA ZERBITZUA
San Martingo baratzetako Okitaño elkarteak antolatuta, interesa duten herritarrentzat.

MENDI IRTEERA

> **IRAILAK 18 /**
ERROMES BIDEA
Arantzazuko parketxeak eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatuta, Oñati-Olate-Jaturabe-Arantzazu ibilaldia.

> **IRAILAK 24 /**
GEO-IBILALDIA URBIARA
Ondare geologikoa ezagutzeko mendi irteera gidatua, turismo bulegoaren eskutik.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Nobela
"Cosecha"



Nobela
"Dora Bruder"



Nobela
"Mala letra"



Saiakera
"Gizabere kooperatiboaz"



Liburua
"La magia del orden"



Nekazaritza liburua
"Ruta 66: coches, moteles..."

MERKATU TXIKIA

- > **Txabola** berriztua (50m²) salgai Araotzen. 652737731
- > **Akuarioa** (60 litrokoa) salgai 30 eurotan. Argiak ditu eta filtroak ere bai. Interesatuek deitu 943783070.
- > **Etxebizitza** alokagai San Lorentzoko 33an (4. solairua). 3 logela, sukalde hornitua, 2 komun, ikasteko gela, egongela handia eta 2 balkoi. Deitu: 663 760 233.
- > **Garaje** itxia alkilerrean Matinguan. Deitu: 943780777.

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorenzo 3, 943 78 21 16
Irailak 19, 20, 28, 29 eta 30, eta urriak 7, 8 eta 9.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Irailak 5, 7, 13, 15, 21 eta 22.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Irailak 2, 3, 4, 6, 8, 12, 14, 23, 24 eta 25, eta urriak 4.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Irailak 16, 17, 18, 26 eta 27, eta urriak 1, 2, 3, 5 eta 6.

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSOIAK, LARRIAK, LURRI FURTOITZAK, ANBARRAK, PINTURAK, LARRIAK...






ORDENATZAILA ETA MANTENTZAILA
BERRALDIA, HERRAMAKUAK ETA AKSESORIOAK
ORDENA 12.00-4.00h. - 300000 ERVOTZI - 00411000
695 78 91 04 - 943 04 47 77



fotodepilación con láser plasma

FOTODEPILAZIOA
IPL GAZTETZEA

AZALEKO GARBINETAK
OPARI TXARTELAK

Tarifa finkoa 30€ (zona / sesio)

Olakua 1B, Behea
☎ **943 71 67 13**
✉ onati@nomasvello.com

www.nomasvello.es



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Hausnarrian

Euskalkixak edo euskera moldiak

Euskaldunok lau katu izan, eta hala be, ezin alkarri entendi. Haundixa da gero! Berba berak zenbait herritan gauza desbardiñak esan gura ditte.

Ni Bizkaira lehenengo aldiz fan nintzian udia zan. Eguzki galdatan gengozela hara nun entzuten xaten baserritar bateri: —*Horma horretan gora fan da katua.*

Ago zabalik geratu nintzan. <<holako eguraldixagaz `horma`? Gizon hau burutik xagok!>>, pentsau neben neure artian. Laister jakin neben, oster, `horma`, guretako izotza esan gura dauena, Bizkaixan paretari esaten otsailla.

Gero Ameriketara artzain fan nintzan, Ohio aldera. Bizkaitar batzuk oso lagun egin nittuan. Egun batian hareittako bateri holaxe entzun notsan:

—*Bai, ahardi honi apua lehenbailehen emun bihar xako.* Ni begixak zabal-zabalik, entendi eziñik. Apua guk Zigakuok, ugalketako garaixan kro-kro, kro-kro... egitten dauen ipixtitxo zakar baiña mesedegarrinari esaten xaugu.

—*Zer esaten dok, Txandres?*—preguntau notsan bizkaitar hari- *Zertarako emun bihar xak apua txarrixari? Apuak pozoiña xakuai.*

Azkenian argittu nostan <<apua>> berarendako <<aketza>> zala. Beraz, ahardia akeztera eruan bihar ebela esan gura eben.

Aspaldi esana da eta egixa be bada. Zazpi probintzietako euskaldunok alkarri entenditako dogun trabarik haundixena berbaan kontua dala.

'Aldarte oneko ipuinak'. Gotzon Garate. (moldauta)



Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|------------------------|----------------------|
| 1. Aittajaun-amandriak | a. Suhia |
| 2. Izeko | b. lloba (sobrino/a) |
| 3. Ume | c. lzeba |
| 4. Suiña | d. Haur |
| 5. Lloba | e. Aitona-amonak |

Nun dago?

la asmaitten dozuen nun gozen sei errota honeik:

- | | |
|-------------------|-------------------------------------|
| 1. Olaldekoa | a. Garagaltzan |
| 2. Santa Kruzkoa | b. Zañartun |
| 3. Lamiategikua | c. Murgixan |
| 4. Zubillagakua | d. Otadui zuhaitzitan edo arboledan |
| 5. Errotabarrikua | e. Altuna fabrikiaren onduan |
| 6. Usakokua | f. Goribarren eta Araotzen |

-Billatu berba honein sinonimuak: 1e, 2c, 3d, 4a, 5b / -Nun dago? 1d, 2c, 3a, 4e, 5f, 6b

ERANTZUNAK

EUSKERAZ EGOGI

*Fateko!

*Jasarteko!

*Ixilik egoteko!

Askotan entzuten dittugu holako agindduak emuten agindduori lehenengo aldiz emuten danian, eta horreitan eztago ziharkako aginddua ebalterik. Aginddu zuzena ebali bihar da: **Fan!, Jarri!, Ixilik egon!**

Baiña, norbaitteri esan baxaugu ixilletako eta ez badosku entzun, eta zer? galderia botaten badosku atzera esateko, orduan zuzena da ziharkako formia ebalta:

Egon ixilik!

Zer?

Egoteko ixilik!

Eta badago beste ebalera oker bat be honekin lotuta:

*Fateko bera → Fan dedilla bera! / Doiala bera!

Fateko eta **fan dedilla** sinonimuak dira **esan, eskatu, aginddu, proposau...** moduko aditzekin doiazan mendeko esaldixetan:

• Esaiozu **fateko** = esaiozu **fan dedilla**

Baiña **fan dedilla!** moduko esaldixak ebalten dira hutsik, batez be, subjektua 3. pertsona danian; era honetara:

• *Etorri dedilla gura badau!*

• *Egin degixela berak!*

Esaldi horreitan etxaugu ondokuari aginddurik emuten. Horrein esanguria hauxe litzake gutxi gorabehera: *etortia dako, egittia dako berak gogorik badako...*

Holakueta ezta zuzena —tzeke ebalta:

• **Etoteko gura badau!*

• **Egittoko berak!*

Honein orde bestea honeik ebali biharko gittuke:

Geurian egingo dogu bazkari pasaria eta etorri dittezela gura badaue!

Hain artistia bada, egin degixela berak!

HISTORIA TXATALAK

Erromesaldi handiak

> Asko izango dira aurten ere irailaren 9an Arantzazura erromes joango diren herritarrak, aspaldiko ohiturari jarraituz. Izan ere, horixe baita santutegiaren jatorrizko arrazoia edo funtzioa, alegia, erromesak biltzea. Ama Birjiñaren irudia Baltzetegiko Errodri-gori agertu zitzaionetik (1469) hainbat eta hainbat erromes erakarri ditu Arantzazuk bost mende luzeetan zehar.



Baina Arantzazun seskula egin diren erromesaldirik handienak 1881ean izan ziren. Leon XIII.aren dei bati erantzunez ospatu ziren erromes-jardunaldi haiek, eta Gasteizko M. Miguel y Gómez goztainak elizbarruti osoa deitu zuen Arantzazura. Abuztuaren 31n hasita, egunez egun antolatu ziren herri ezberdinetako erromesaldiak eta Bederatziurren osoan Arantzazun bildutakoak 40.000 inguru izan omen ziren.

1918ko bederatziurrena ere berezia izan omen zen. Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzaren lehen biltzarraren harira, 12.000 bisitari jaso zituen santutegiak. Eta 1955-1956ko Jubileuan ere erromesaldi bereziak antolatu ziren, baina urte osoan zehar banatuta; urte hartan 440 herri-erromesaldi egin ziren, eta 90.000 lagunek jaunartu zuten Arantzazuko santutegian.

Olabarrieta

> Jerardo Elortza

Baserri-giroko auzoen artean jendetsuenetakoa izan da Olabarrieta. Orain nekazaritzatik bakarrik inor gutxi bizi baldin bada ere, **laurogei baserritik gora egon izan dira hemen**, gaur egun, kasurik gehienetan, dotore eraberritutako etxebizitzak direnak. Lurrez ere ez da txikienetakoa. Oñatiko Larraña, Murgia eta Arantzazu (Arriurdineko ton-torrean) auzoekin ditu mugak; halaber, Legazpiko udalerriekin, Gorostiaga, Udana edota Jarondoko mendi-basoetatik zehar.

Kale aldetik oso hurrean kokatuta, etxerik gehientsuenak Udana mendaterantz hasten den aldapa baino lehentxoago aurkitzen dira ingurune eroso samarrean. **Bi auzune nagusi** zeuzkan historikoki: bata Basauri (Basabi deitzen diote oraindik), eta **Olazaran** bestea (auzotarren gomutatik ezkutatutako toponimoa); lehenak **San Kristobalen ermita** zuen (XIX. mendean eraitsia, kamino kontrako santutxuak zutik dirauen arren); bigarrena **San Jose** ermitaren inguruan biltzen da. Badira, jakina, han-hemenka, sakabanatua-godo dauden baserriak ere: beheko ibarrean batzuk, pendizean gora beste batzuk.

Era askotako lanbideak izan dira Olabarrieta auzoan

Alabaina, leku-izenek berek erakusten digutenez, izango ziren han industria-arloko jarduerak ere gizaldi askotan: izan ere, auzoari Olabarrieta, auzune bateri Olazaran eta erreka nagusiari Olaran deitzen baldin bazitzaie, **burdingintzak garran-tzia** zuen seinale da. Gaur egunera arte, Errementari baserriko sutegi klasikoa geratu zaigu lekuko gisa. **Teileriak** aspalditik agertzen zaizkigu, eta XX. mendean bestelako industria txikiak ere izan dira: **zerrak, tailerrak, biltegiak** eta abar. Herrian martxan den errota bakarra Olabarrietan dago. Urte askoan eza-gutu genuen sagardotegia Artxubín, bi taberna ere bai garai desberdinetan, eta orain jende asko erakartzen du Lizar-etxe jatetxeak.

Bestelako ofizioak ere eduki zituzten olabartarrek: besteren artean, **artzainak Durun, ikazkinak Aloña-azpin, meatzariak (miñerreak)** Kataberan, **itzainak (karreteruak)** hainbat basotan, **saskigileak (banastagiñak)** etxe askotan, edota **langileak (fabrikanteak)** Oñati eta Legazpiko enpresetan. Eta amaitzeko, auzo honetan jatorria edo sortetxeren bat eduki ditzaketan abizen oso oñatiarrak gogoratuko ditugu, batzuk galzorian daudela jakinik ere: adibidez, **Olazaran, Kortabarria, Letamendi, Billar, Arrazola, Aiastui, Ugarte eta Resusta.**

Edonola ere, aitortu behar dugu, beste zenbait auzo oñatiarrekin gertatzen zaigun legez, **Olabarrietak askoz gehiagorako idazgaia eskaintzen digula**, baina orrialde honen mugetan errenditzeko premiak eraginginda, oraingoz aipatu gabe gelditu beharko dena.

ESKAINNTZA **90€** **BEREZIA**

Santutegi berrak

EZKONTZETAN **Utxe-Mundi**

2016-2017 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com



Maristetako mutikuak 1952-1953 kurtsuan

Urte askuan egon da argazki hau gure eskuen artian eta aspalditxotik publikaittekotan giñan, baiña izen batzuk falta zira-lako edo beste arrazoiren batzuegatik, lartxo atzeraketan fan xaku asmuori. Baiña orainguan, zirt edo zart, argittarake-tia erabagi dogu, geldiketan diran hutsuna apurrak edota egon leizken akatsak beteten eta zuzenketan zuek be lagundu-ko doskuzuelakuan.

Bost maillatan banatuta gegontzen orduan fraide maristekin gerra ostian ikasten jardun geben mutiko oñatiarrok. Irakasle honeik XX. gizaldixaren hasieran ailegau ziran gure herrira unibersidadia itxi zanian; 1928xan, hasarre antzian, alde egin euen maris-tak hemendik, majo kostata, batxillerra emuteko institutua eraikin historiko haretara barriz ekartia lortu ebelako Oñatiko herri-xak. Zortzi urte beranduago **gerriak dana hankaz gora ifiñi eben:** institutua kendu euen aginttari frankistak eta 1939xan maris-tak bueltau ziran; baiña oiñarrizko ikasketak erakustera. **Gure belaunaldixari batxiller bariko sasoia tokau xakon.** Izan be, 1963tik aurrera unibersidade zaharrian barriro institutua jarri zan-eta.

Fotografixa honetan **bost irakasle eta 181 ikasle** agerketan gara. **Kaletarrak gehixenak, baiña badira auzuetaquak be:** Larra-ñako hamar, Zubillagako beratzi, Garagaltzako beratzi, Goribarreko zortzi, Madalenako lau, Zañartuko lau, Olabarrietako lau, San Pedroko bi eta araoztar bat. Berrogeta hamaika guztira. Ia ezaguketan dittuzuen auzatarrok nahiz kaletarrok. Behetik gora eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue maristen San Migel kolejixoko izen eta abizenak:

Behian, lehenengo illaran: Rafael (?) Hidalgo; X. X.; Joxe Luis Madinagoitia; Juan Mari Irizar; Bittor Galdos; Luis Galdos; Eujenio Mugartza; Joxe Luis Agirre; Jabier Egaña; Hermano Tomas, 4. maillako maixua; Hermano Karlos, 5. maillako maixua eta ikastetxeko zuzendarixa; X. X., 3. maillako maixua; Bixente Ezeolaza; Kandido Ugarte; Migel Angel Mugartza; Ramon Beitia; Joxe Luis Azkargorta; Joxe Luis Urtzelai; Iñazio Urtzelai; Fernando Lukas; Jexus Mari Irizar; eta Joxe Luis Igartua.

Bigarren illaran: Fernando Lizarralde; Rufino Orueta; Joxe Ramon Osinaga; Joxe Antonio Arregi; Juan Manuel Leturia; Jexus Arregi; Joxe Mari Errasti; Juan Mari Galfarsoro; Migel Etxaburu (atzian, bi maristen artian); Juan Kruz Urtaza; Felix Kortabarria; Anjel Uribetxeberria; Jabier Guridi; Joxe Luis Lazkano; Alberto Laskurain; Joxe Mari Balantzategi; Joxe Mari Beitia; [X. X.]; eta Juanito Altube.

Hirugarren illaran: Joxe Ramon Galartza; Jabier Galartza; Juan Kruz Arregi; [X. X.]; Juan Kruz Zubizarreta; Joxe Mari Cantero; Migel Aramendi; Joxe Antonio Madina; Jexus Gómez; Daniel Agirre; Jabier Elortza; Bixente Olalde; Rafael Agirre; Felix Ugarte; Jabier Ugarte; Anton Ugarte; Luis Irizar; Fernando Irizar; Jexus Txintxurreta; Joxe Mari Txintxurreta; Martzelino

Altzelai; [X.] Tejerina; Joxe Mari Altube; Pedro Irazabal; Felix Azkargorta; eta Hermano Antonio, 2. maillako maixua.

Laugarren ilaran: Hermano Justo, 1. maillako maixua; Juanito Igartua; Pedro Biain; Andres Antigua; Xanti Azkargorta; Jabier Billar; Joxe Mari Markuleta; Migel Korkostegi; Joxe Mari Egaña; Juanito Billar; Felix Igartua; Joxe Mari Kortabarria; Iñazio Bartolomé; Jabier Mugartza; Jerardo Elortza; Rafael Ugarte; Karlos Agirrebengoa; Luis Mari Samaniego; Rikardo Madina; Juan Iñazio Arana; Migel Azpiazu; Joxe Mari Igartua; Pedro Arregi; Esteban Igartua; eta Leontxi Lana.

Bosgarren ilaran: Anjel Mari Zubia; Migel Murguzur; Federiko Igartzabal; Jabier Iraola; Karlos Astigarraga; Pedro Mari Igartua; Migel Mari Ugarte; Bixente Madina; Bixente Elgero; Pedro Agirre; Migel Anjel Iraola; [X.] García; Joxe Antonio Yániz; Fernando Letamendi; Iñazio Bikuña; Iñazio Elortza; Anjel Leturiaga; Bittoriano Madina; Felix Ibarrondo; Ernesto Plazaola; Joxe Migel Arabaolaza; Bixente Kortabarria; Joxe Arregi; eta Migel Anjel Gutierrez.

Seigarren ilaran: Jexus Mari Albizu; Joxe Mari Urtzelai; Iñazio Astigarraga; Bittor Altube; Joxe Ramon Arabaolaza; Jaime Agirre; Nikolas Ugarte; Antonio Campos; Joxe Mari Odriozola; Joxe Luis Altzelai; Joxe Manuel Molinero; Jexus Maiztegi; Juan Joxe Martínez de Zuazo; Anastasio Egaña; Juan Mari Mugartza; Jexus Mugartza; Juan Karlos Ormazabal; Fernando Madina; Antonio Mugartza; Luis Mokoroa; Pedro Mari Zubia; Luis Aristegi; Pedro Aiastui; Jexus Mari Guridi; eta Antonio Elkoroiribe.

Zazpigarren ilaran: Luis Mugartza; Joxe Mari Korkostegi; Modesto Etxeberria; Jexus Madina; Joxe Luis Astigarraga; Joxe Mari Erostarbe; Joxe Mari Leturiaga; Joxe Antonio Agirrebengoa; Fernando Etxaburu; Migel Agirrezabal; Migel Anjel Gorritxo; Joxe Luis Lizarralde; Pedro Odriozola; Pedro Mari Altuna; Joxe Luis Mugartza; Iñazio Etxaniz; Pedro Larrañaga; Reyes Elortza; Joxe Luis Inza; Iñazio Ibarrondo; Jabier Bikuña; Bittor Urtzelai; Felix Mari Madina; eta Iñazio Etxeberria.

Goixenian, zortzigarren ilaran: Jabier Madina; Migel Anjel Ugarte; Roberto Zubia; Julian Altzelai; Konrado Kernstock; [X.] López; Felipe Antonio Igartua; Juan Mari Igartua; Juan Karlos Kortabarria; Bittor Perosterena; Jorge Berrikano (?); Jabi Altube; Pako Guridi; Fernando Arregi; Joxe Manuel Luzar; Manolo Romano; Jexus Ezpeleta; Alonso Asensio; Fernando Kortabarria; Anjel Mari Iturbe (?); Iñazio Arriaran; eta Rafael Urtzelai.

Kontuan izanda ikasle-talde honetako gaztienak be 70 bat urte izango dittuala, eztira asko hainbeste denpora pasau eta gero gure artetik fan xakunak: berrogei pasatxo bakarrik. Zuen komentariño eta zeuzenketen zain geraketan gara.

J. E.

Pelotalekuko harmailla zaharretan ataratako argazki hau 1953ko udabarrikua eta Plazaolak ataratakua izan leike. Guri Nikolas Ugartek eskuratu dosku. Argibiderik gehixenak be Nikolassenak dira, baiña, bestiak beste, Joxe Mari Cantero, Feli Zumalde, Jexus Mari Goitia, Pedro Irazabal, Joxe Mari Igartua eta Iñazio Arregik be gauzatxo batzuk zihaztu doskue. Milla esker danoiri!

AGURTZANE
ileapaindegia
Ondo pasau jaihetan!!
Euskadi Etorbidea 8 • Tel.: 943 53 45 44

 **ZURICH**
M^o del Mar Urrutia Negueruela
Mozxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorri: 620 77 66 20


TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





1956-2016
6
 URTE
 ESKERRIK ASKO !!



grupo
 amuebladora
 mondragonesa

kaltxoi
 leku

Sofa
 leku

ZIGARROLA 1
 TEL.: 943 79 15 03
 ARRASATE

BANAK
 unperita

ZERKAOSTETA 3
 TEL.: 943 71 10 11
 ARRASATE



ZIGARROLA 1
 TEL.: 943 71 10 12
 ARRASATE

centro hogar **MUERLES**